

"Euskal Herrian kultura putero handia dago; geroago eta prostituzio-etxe eta pisu gehiago daude"

Erreportajea Amelia Tiganus esplotazio sexualaren biktima izan da. Joan zen eguaztenean, prostituzioaren eta pornografiaren inguruan duen ikuspuntua azaldu zuen Plateruenean emandako berbaldian. • 2-3. orrialdeak

LEHIOR ELORRIAGA

Nork du giltza?

Biharko udal eraketetan Durango izango da interesgune nagusia, ezkerreko gobernu berria sortzeko aukeragatik. Abadiñon, Zaldibarren eta Elorrioren ere akordioen arabeko gobernuak osatuko dira. Negoziazioak amaituta, akordioen giltza nork duen ikusiko da bihar. • 5

Elorrioko garbitzaileak 45 egunetik gora greban

ELORRIO | Apirilaren 29az geroztik, Elorrioko eraikin, eskola eta lokal publikoetako garbiketa zerbitzuko langileak greba mugagabea daude. Harezkerok, gutxieneko zerbitzuak ezarri dituzte eraikinak garbitzeko. Langileek elkarretaratzea egin zuten eguaztenean. Gutxieneko zerbitzu horiek alarma piztu dute haur eskolako familien artean, eta arduratuta daudela jakinarazi dute. Bere aldetik, Elorrioko Udalak egoera ez dela "erosoa" eta bere onera ekartzeko lanean jarraituko dutela jakitera eman du.



**autoen
gehigarria 2019**



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.
- Nazionalitate irakaskuntzak.

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
ekainaren 17tik 27ra

Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

“Prostituzio-etxeak emakumeak deshumanizatzen dituzten kontzentrazio esparruak dira”

Andereak elkarteak gonbidatuta, Amelia Tiganus (Errumania, 1984) Fenimicidio.net plataformako koordinatzaileak esplotazio sexualaren gordinatsuna lehen pertsonan kontatu zuen eguaztenean Plateruenean emandako berbaldian

DURANGO • JONE GUENETXEA

Amelia Tiganus aktibista feminista bizirik itzuli da infernutik. Esplotazio sexualaren biktima izan eta gero, bere burua berreraiki du, eta prostituzioaren atzean dagoen errealitatearen berri ematen dihardu. Ez dira urruneko herrietan gertatzen diren eraso eta gehiegikeriak. Norberaren kalean zein herrian gertatzen dira. Milaka emakume ikusezinek bizi duten esklabutza egoera da. Milaka gizon puterok kontsumitzen duten merkaturak da.

Zelan bilakatu zinen salerosketaren biktima?

Esango nuke biktima egin nindutela. 13 urte gaz talde bortxaketa bat jasan nuen. Hortik aurrera, nire bizitzan haustura bat dago, ez bakarrik bortxaketagatik. Sozialki suposatu zuena ere gogorra izan zen: marginalizazioa, estigmatizazioa, berbiktimizazioa... Momentu horretatik aurrera, bortxaketak sistematikoak izan ziren. Etsi egin behar nuen. Askotan, hori kontsentimenduagaz nahasten da. Bizirik irauteko modu bat da. Egoera hain babesgabe horretan, eurenganatu egin ninduten. Prostituzioak dituen abantailez berba egiten hasi zitzaizkidan, eta prostituzioagaz aberastutako emakume batzuk ipintzen zizkidaten adibide lez. Gaur egun ere, prostituzioaren alde berba egiten duten emakumeak ereduak dira egoera ahulean dauden beste emakumeak erakartzeko. Nik berriro ikasten hasi gura nuen, egonkortasuna gura nuen. Hamazazpi urte nituen, eta aukera horri heldu nion.

Zelan etorri zinen Errumaniatik estatu espainiarra?

Alacanten hasi nintzen. 300 euroren truke saldu ninduten, proxeneta espainiar bati. Bost urtean, 40 prostituzio-etxetan egon nintzen.

Zelakoa izan zen infernu hori?

Prostituzio-etxeak emakumeak deshumanizatzen dituzten kontzentrazio esparruak dira. Objektu bilakatzen gaituzte, proxenetak aberasteko eta puteroek ondo pasatzeko.

Puteroei buruz dagoen irudia eta errealitatea desberdinak direla diozu Batzuek esaten duten moduan, puteroak "gizon normalak" dira. Imajinario popularrean esaten da gizon horiek ez direla ederrak fisikoki, edo ezkongabeak direla. Baina ez da horrela. Gehienak beste emakume bategaz konprometitu daude. Gainera, geroago eta gazteagoak dira. Bortxatzaile eta putero baten artean dagoen ezberdintasuna da puteroek ordaindu egiten dutenez erantzukizuna kentzen zaiela. Estatistikek diote 10 gizonetik lauk kontsumitu dituztela edo kontsumitzen dituztela emakumeen gorputzak. Beraz, denok ezagutzen dugu baten bat.



Tiganus, Andereak elkarteak antolatutako berbaldian, Plateruenean.

40 prostituzio-etxe horien artean, Euskal Herrian egon zara?

Bai, hainbatetan. Gainera, Euskal Herrian kultura putero handia dago. Ezin dugu ahaztu gizonik gehienek kuadrilako afaria, jaiak edo despedidaren bat izaten dutela astean behin, eta prostituzio-etxeetan amaitzen dutela. Gizonen maskulinitate patriarkal horregaz jarraitzen dute, eta geroago eta prostituzio-etxe eta pisu gehiago daude. Zebitzari moduan lan egiten nuen jatetxean, putero asko aurkitu ditut euren bikotekideagaz bazkaltzen. Beste pertsona batzuk ematen zuten, otzanagoak. Emakume horiek ez lukete sekula ere pentsatuko gizon horiek putero batzuk direla. Baina, transformatu egiten dira, ahal dutelako eta onartu egiten zaielako. Horrela indartzen dute euren maskulinitatea, emakumeak iraintzen. Emakume bat irainduta, beste denok ere iraintzen gaituztelako.

Sistema honetan, pornografiak zein paper jokutzen du?

Pornografia da motorra martxan mantentzen duena. Rosa Cobok dioen moduan, prostituzioaren marketina da. Nire esperientziatik putaren fabrikazioaren teoria landu dut. Era berean, puteroak sortzea ere beharrezkoa da errubedak bueltak ematen jarraitu dezan. Hartara, pornografia da prostituzioaren eskaera sortzen duena.

“

Euskal Herrian kultura putero handia dago; geroago eta prostituzio-etxe eta pisu gehiago daude”

■

Interneten bidez, geroago eta gazteagoek eskura dute pornografia.

Ikerketa baten arabera, zortzi urteko umeek sarbidea dute pornografia gogor eta misoginora. Adin horregaz emakumeen kontrako biolentzia horretara sarbidea izatea oso kezagarria da. Gizarte honetan ez dugu hezkuntza sexual-afektiborik, beraz, publiko hain gazteak biolentzia mota hori kontsumitzea oso arriskutsua da.

Zenbat denboran jasan dezake pertsona batek horrelako egoera bat?

Prostituta baten bizitza erabilgarria bi edo hiru urtekoa da. Gero, desgaste fisiko eta psikologikoa itzela da. Emakume asko isiltasunean irteten dira. Jendarteak eta instituzioek abandonatu egiten dituzte. Ematen diguten tratamendu bakarra pilulak errezetatzea da. Antidepressiboak. Horrela ezkututzen da patriarkatuak gaixotu gaituela. Hori, kasurik onenean. Askok bere buruaz beste egiten dute edo erailda amaitzen dute. Bizitza oso biolentia da.

Prostituzioan diharduten emakumeek estigmatizazioa bizi dute.

Emakume askok arazoak dituzte prostituta baten inguruan berdintasunetik berba egiteko. Emakume askorentzat ez dira ahizpak eta ez dira berdinak. Ustez, libreki erabaki dute prostituzioan jardutea. Prostituzioan dabiltzan emakumeen %80 migratzaileak dira eta ez dute batere babesik. Horregatik, proxenetismo forma guztiak zigortzearen aldekoa naiz. Estatu honetan, emakumeen esplotazioa baimentzen da. Gure errepideak kontzentrazio esparruz beteta daude, emakume txiroez beteta. Ez dute beste aukerarik. Biolentzia sexualaren kontra bagaude, biolentzia guztien kontra egon behar dugu, diru trukea egon zein ez. Gainera, diru horrek proxeneta

eta ogasuna aberasten ditu. Kaleak hainbat goiburugaz betetzen ditugu: *Erasorik ez erantzunik gabe, Ez ezetz da, nik sinesten zaitut*. Baina, gero, astebururo, gizon askok "bai" baino esan ezin duten emakumeei egiten diete eraso, taldeka ere bai. Emakumeak mehatxatuta daude, babesik barik. Atea zabalik egon arren, prostituzio-etxe horren kanpoan ez dute ezer. Gizarteak lobby proxeneta diskurtsoa errepikatzen du, hau da, libreki erabaki dugula eta kotizatu egin beharko genukeela. Emakumeak berbiktimizatzea da hori, eta egoera horretan daudenak berdin jarraitzea bultzatzea. **Atea zabalik egon arren, kontrolerako zein sistema daude?** Bikotean tratatu txarrak daudenean, kalte psikologikoak daudela ari gara azaltzen feminismotik, emakumea hortik irtetea zailtzen dutenak. Prostituzio egoeran dauden emakumeei ere gertatzen zaie hori. Kalte psikologikoak detektatzeko askoz ere zailagoak dira, emakumeen aldetik ere. Batez ere, politika publikoak behar dira, prostituzio egoeran dauden emakumeek hor-

“

Emakume askok arazoak dituzte prostituta baten inguruan berdintasunetik berba egiteko

■

tik irten gura badute laguntza jaso dezaten. Formakuntza, terapia, etxebizitza, babesak, aholkularitza juridikoa... Hori existitzen ez den bitartean, egoera hori aukeratu dutela esateak ez du zentzurik. Aukeratu, zeren artean? Emakume askok ez dituzte euren eskubideak ezagutzen, ezta hizkuntza ere. Eurak eta euren familiak mehatxatu-

ta daude. Eta, horregatik, egunero egin behar dute paper hori.

Esklabutza egoera horren aurrean, gizarteak eta instituzioek beste alde batera begiratzen dute. Zergatik?

Hasteko, emakume eta umeen esplotazio sexualaren industriak egunean hamar milioi euro mugitzen dituelako. Bestalde, agenda politikoa ez badago, gizarteari garrantzitsua iruditzen ez zaiolako da. Hala ere, berdintasunaren bidean urrats hori ere eman beharko dugu. Emakumeok askatzekotan, denok askatu gaitezen. Ez bakarrik ezetz esan dezaketenak.

Kolonialismo sexualaz berba egiten duzu.

Espainia Europarako sarrera da, bai hegoaldeko emakumeentzat, bai ekialdekoentzat. Ekialdeko mugak zabalik daude, merkeagoa izan dadin. Horregatik daude prostituzio-etxeak errumaniarrez,

“

Gizarteak lobby proxenetaren diskurtsoa errepikatzen du, hau da, libreki erabaki dugula”

■

ukrainarrez eta bulgariarrez beteta. Kolonialismo sexuala presente dago. Rosa Cobok dioenez, puntu honetan zapalkuntza guztiek bat egiten dute: patriarkalak, kapitalistak eta arrazistak.

Feminismoak zelan lagundu dizu zure egoera ulertzen?

Hasteko, sistema prostituzionaletik irtenda. Nire prozesua errespetatu duen ingurua aurkitzeko zortea izan dut. Horrela berreraiki dut neure burua. Orain bost urte teoria feminista ezagutu nuen, eta, une horretan, bizitako guztiari berbak

“

Biolentzia sexualaren kontra bagaude, biolentzia guztien kontra egon behar gara, diru trukea egon edo ez

■

ipini ahal izan nizkion. Nire istorio pertsonala ez zela nirea bakarrik konturatu nintzen. Patriarkatuak gizonen esku ipintzen dituen emakumeen historia dela konturatu nintzen. Momentu horretan konturatu nintzen errua eta lotsa sentitu behar dutenak ez garela egoera hori bizi duten emakumeak, sistema honek, estatuak, proxenetek, puteroek eta beste alde batera begiratzen duen gizarteak baino. Behin hau guztia kontuan hartuta, espazio horietan gertatzen den guztia jakinda beste aldera begiratzea zapaltzaileagaz aliatzea izango litzateke.

Metalgintzako protestak jarraipen handia izan du orain arte, eta beste egun biko greba dute ate joka

Sindikatuak eta patronalak astelehenean dute hurrengo negoziazio batzarra; akordiorik lortu ezean, langileak grebara joango dira berriro, ekainaren 20an eta 21ean



Joan zen barikuan, Bizkaiko metalgintzako langileak Bilbon egin zuten manifestazioa. ELA

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Oraingoz ez dago akordiorik Bizkaiko metalgintzako sindikatuen eta patronalaren artean, eta maiatzaren 23tik hiru greba egin dituzte beharginek. Protestak jarraipen handia izan du orain arte, eta beste egun biko greba deiari eutsi diote. Datozen egunetan akordiorik ez badago, ekainaren 20an eta 21ean berriro irtengo dira kalera.

Hitzarmena hobetzearen aldeko borrokan murgilduta daude, eta nabarmentzekoa da sindikatuen artean lortutako batasuna. ELA, LAB, CCOO eta UGT daude negoziazio mahaian, eta greba deialdia bateratua da. Gainera, ESK eta CGT sindikatuen babesak ere badute. Astelehenean kontzentrazioa egingo dute Durangoko Andra Marian, 19:00etan.

%85eko jarraipena

Orain arteko hiru grebek eragin

handia izan dute Durangaldean. Maiatzaren 23koan, %90eko jarraipena izan zuela kalkulatu zuten sindikatuek, eta joan zen aste bietan, %85ekoa. LABen informazioaren arabera, eskualdean "kasik orokorra" izan zen grebaren

LAB: "Langileek planto egitea erabaki dute, euren eskubideak eta bizitza erdigunean jartzea"

ELA sindikatuak uste du "pilota berriro FVEMren teilatu gainean" dagoela

erantzuna. Enpresarik gehienak zarratuta, eta langileen "portzentaje txiki bat" lanean. Esaterako, Gestamp, Inyektametal, Neco, Polypal, Serratu, Garbi, Aludium, Bruss, Agria eta Layde enpresak za-

rratuta egon zirela informatu du. "Metalgintzako langileek euren eskubideak eta bizitza erdigunean jartzea erabaki dute. Langileen prekaritatearen kontura poltsikoak betetzen dituen patronal aseeginaren aurrean planto egin dute", adierazi du LABek.

Batzarra astelehenean

Bestalde, ELAk uste du "pilota berriro FVEMren teilatu gainean" dagoela. Astelehenean dute hurrengo batzarra metalgintzako enpresen federazioagaz, eta CCOO esan du patronalak "era arduratsuan" negoziatu beharko lukeela. Esaterako, lan erreformaren aurkako "blindajea", 8 orduko lanaldi murrizketa, aldi baterako kontratuak mugatzea, 2018ko urtarrilaren 1etik egondako atzerakinak ordaintzea, eta genero berdintasuna areagotzeko neurriak ipintzea dira eskarierako batzuk.



Dorita Ruiz, ezkerrean, Nerea Mujika Gerediagako presidentegaz.

Dorita Ruiz irakasle ohia omendu du Gerediagak

Ruizek lan handia egin zuen Hezkuntza Berezia-aren arloan; besteak beste, Durangoko Landako eskolan

DURANGALDEA • M.Z. / M.O.

Dorita Ruiz irakasleak lan handia egin zuen Hezkuntza Berezia-aren arloan hainbat urtean zehar, eta Gerediaga elkarteak lan hori omendu gura izan zuen zapatuan. Ekitaldian, Teila saria eman zion, merinaldeaz kanpoko herritarrek eskualdean eginiko lana edo sortutako loturak eskertzeko

erabiltzen duten saria. Bere ikasle izandako batzuk ere egon ziren.

Ruiz Burgosen (Espainia) jaio zen, eta Euban bizi da aspalditik. 1967an Karrantzan ekin zion Hezkuntza Bereziko lanari. Gero, Durangoko Landako eskolan aritu zen, hainbat urtez. Gainera, Jaur-laritzaren Hezkuntza Bereziko Plana osatzen parte hartu zuen.

Nagusien gimnasia topaketa egingo dute Zaldibarren

Durangaldeko 200 bat parte-hartzaile egongo dira gaur, eta Olazar pilotalekuan izango da, 11:30ean

DURANGALDEA • M.O.

Amankomunazgoko Pertsona Nagusien Zerbitzuak gimnasia topaketaren beste edizio bat antolatu du gaurko. 11:30ean hasiko da, Zaldibarko Olazar pilotalekuan. Bertan 200 bat parte-hartzaile batuko direla azaldu dute. Ikasturtean zehar herrietako gimnasia taldeetan ibiltzen diren pertsonen gainera, eskualdeko egoitzetan bizi direnek ere parte hartuko dute. Guztiak 55 urtetik gorakoak

dira; 80 urtetik gorakoak, 11, eta 90 urtetik gorakoak, 8. Batek 102 urte ditu.

Ariketa fisikoaren garrantziaz berba egin dute oharrean. "Era jarraituan eta kontrolatua egingo dako ariketa fisikoak bat-bateko zahartzarora saihesten du, zahartzaro fisiologikoa atzeratzen du eta gaixotasun batzuen agerpena ekiditen du, jateko gogoa eta loa hobetzen dituelako", nabarmendu dute zerbitzuko kideek.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko ekainaren 14a
17. urtea - 767. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak Durangoko Udalean aldaketa politikoa egia bihurtzeko giltza edukiko dute bihar

Bihar eratuko dira udalak, eta, eskualdean, Durango izango da interesguterik handiena, 40 urtean EAJ agintean egon eta gero etapa berri bat hasi daitekeelako

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 26ko hauteskundeetan herritarrek euren iritzia eman eta gero, bihar eratuko dira udalak. Durangaldean, Durango izango da interesguterik handiena, 40 urtean EAJ agintean egon eta gero etapa berri bat hasi daitekeelako. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak ezkerreko aldaketa politikoa egia bihurtzeko giltza edukiko dute.

Oraingo ez dago akordioaren inguruko informazio ofizialik, baina bide guztiek aldaketara garatuzate. Alde batetik, ezkerreko alderdi biek azken lau urteetan elkarlanerako erakutsitako gaitasuna da akordioa sustengatzeko oinarria. Bestetik, hauteskunde gauean emaitzak elkarregaz ospatu izana aurrera begirako ikuspegiaren seinale da. Aste honetan, Herriaren Eskubideko partaide den Elkarrekin Podemos alderdiak adierazi du Durangon eta Elorrión bideratuta daudela akordiorako negoziatzioak. EH Bilduk batzarra egin zuen eguaztenean, akordio aukerei bu-



21 zinegotzik hartuko dute bihar kargua Durangoko Udalean.

Elkarrekin Podemosek adierazi du Durangon eta Elorrión bideratuta daudela negoziatzioak

ruz berba egiteko, baina ez dute informaziorik aurreratu. Beraz, bihar arte itxaron beharko da.

EAJren saiakera

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak gehiengo osoa izan arren,

hauteskundeetan EAJ izan zen alderdirik bozkatuena eta jarlekurik gehien lortu zituenena, eta, horregatik, gobernua eratzeko saiakera egin dute jeltzaleek. Baina ez dute lortu. "Ez da ezelako akordiorako borondaterik sumatu alderdi po-

litikoen artean, PSE-EEgaz salbu", azaldu dute prentsara bidalitako oharrean. Inbestidura akordioa, egonkortasunerako akordioa eta gobernu ituna proposatu dizkie

EH Bilduk batzarra egin zuen eguaztenean, akordio aukerei buruz berba egiteko

EAJ: "Ez da ezelako akordiorako borondaterik sumatu alderdien artean, PSE-EEgaz salbu"

alderdiei EAJk. Tartean, estazioaren gaineko kontsulta, aireari buruzko ikerketa, gobernantza parte-hartzailea eta osasun zerbitzuak hobetzeko proposamenak helarazi ditu akordiorako eduki lez.

DURANGALDEA • M.O.

Durangokoagaz batera, Abadiño eta Zaldibarkoa izango dira jakin-minik handiena piztuko duten udalak. Herri bietan EH Bildu izan zen irabazle, baina ez du segurtatuta gobernua osatzea.

Abadiñon 5 zinegotzi lortu zituen Mikel Urrutia zerrendaburu duen alderdiak, eta EAJk eta Aik, 4. ANBOTOk jakin ahal izan duenez, EH Bilduren eta independenteen arteko negoziatzio batzarrek egon dira azken egunetan. Aik

Zaldibarren, EAJk eta PSE-EEK erkidegoan adostu duten akordioa gauzatzeko aukera dute

Abadiñon eta Zaldibarren irabazi arren EH Bilduk ez du gobernua segurtatuta

Abadiñon independenteeek edukiko dute udal gobernua eratzeko negoziatzioen giltza

edukiko du giltza, eta Amankomunazgoan ere botere bera duenez, baliteke negoziatzioetan kargu biak nahastea. Horregatik, EAJren eta Airen arteko gobernu bat ere itxaron daiteke, azken legealdiko akordioa berretsita.

Zaldibarren, 5 zinegotzi lortu ondoren, Eneritz Azpitarteren zerrendak gobernua osatzeko ahalegina egin du, baina EAJk (4) eta PSE-EEK (2) erkidegoan adostu duten akordioa gauzatzeko aukera dute.



Abadiñon ez dago argi zein alderdik hartuko duen alkatetza.

ANBOTOk udal eraketen zuzeneko jarraipena egingo du bihar

DURANGO • M.O.

Durango, Abadiño eta Zaldibartik aparte, beste hainbat interesgune egongo dira biharko udal eraketen egunean. Adibidez, Elorrión EH Bilduk alkatetzari eutsiko dio Herriaren Eskubidearen abstentzioari eskerrak. Atxondon eta Garain gobernu aldaketak egongo dira, EAJren alde. ANBOTOk horien guztien zuzeneko jarraipena egingo du, bere webgunearen eta sare sozialen bitartez.

DIBA
KOOPERATIBA

**Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

Kobaneko emakumeen iraultza ezagutzeko dokumentala ikusgai

laz Kurdistango hirira eginiko espedizioaren ondorioz sortu dute 'Iraultzaren haziak'



Durangotik joandako herritarrek eta Kobaneko ordezkari batzuk, bisitaldian ateratako talde argazki batean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2017an, Durango Kurdistango Kobane hiriagaz senidetu zen, herriko Suargi elkarteko kideek hara eginiko bidaia baten ondoren. Durango 1937an bezala, azken urteetako gerrak suntsitutako herria da Kobane. Senidetza hori indartzeko asmoz, Suargi elkarteak eta udalak bidaia bat antolatu zuten iaz; kasu honetan, emakumeak izan ziren protagonista. Espedi-

Durango 1937an bezala, azken urteetako gerrak suntsitutako herria da Kobane

Kobaneko egitura feministak ezagutzea izan zen iazko espedizioaren helburua

zioan herriko feminista batzuek parte hartu zuten, eta Rojavako egitura feministak ezagutzea izan zen helburua. Izan ere, parekidetazuna da kurduen konfederalismo demokratikoaren zutabeetariko bat. Bidaia hartatik, *Iraultzaren haziak* dokumentala sortu dute, eta ekainaren 19an egongo da ikusgai, Plateruenean, 19:30ean.

Erabaki plataformak "esperantzagaz" itxaroten du gobernu berriaren eraketa

DURANGO • M.O.

Erabaki plataformak prentsa oharrean azaldu du "esperantzagaz" itxaroten duela gobernu berriaren osaketa. "Ilusioz itxaroten dugu gobernu berriaren eraketa, behingoz, trikimailu politikoaren bitartez sei hilabetearen geldirik egon den prozesuan aurrera egiteko", esan du galdeketa aldeko taldeak. Hauteskundeak EAJk irabazi arren, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak gobernu gehiengo osoz eratzeko aukera dute.

Udaleko agintariekin "ahalik eta arinen" batzartzea eskatuko du Erabakik, eta, haiei entzuteaz gainera, Espainiako Gobernuaren ministro kontseiluari galdeketa egiteko baimena eskatzea proposatuko du.

Kurutziaga ikastolako Haur Hezkuntzako eraikinaren proiektua saritu dute

DURANGO • M.O.

Kurutziaga ikastolak Haur Hezkuntzako eraikina eraberritu zuen iazko urtarrilean, eta Hego Euskal Herriko arkitektoen elkargoak proiektu hori saritu du. Edu eta Eloi Landia anaiek (ELE) eta euren aita Jesusen estudioak elkarlanean aurkeztutako ideia aukeratu zuten. Arkitektura pedagogiaren zerbitzura garatzea izan zen egitasmoaren helburua. Izan ere, espazio zabalak eta diafanoak sortu gura zituzten.

Eloi Landia pozik agertu da, "maila handiko" arkitektoen artean saritu dituztelako. "Aitak 40 urtean eginiko lanari erre-konozimendu bat da, baita gu egiten gabiltzan esfortzuari ere. Bultzada bat da guretzat", esan du durangarrak.

Bentzeno aztarnak detektatu ahal izateko, neurgailua ipini dute

laz estazio mugikor baten bitartez eginiko ikerketagaz egiaztatu zuten Durangoko airean bentzeno isuriak zeudela

DURANGO • J.G. / M.O.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak neurgailua ipini du Durangon, bentzenoa eta beste konposatu lurrunkor batzuk airean detektatu ahal izateko. Kontua da iaz estazio mugikor baten bitartez eginiko ikerketan bentzenoa detektatu zela Durangoko airean, eta horren harira egingo dute aldaketa ohiko estazioan. Ingurumen Sailak

dio detektatutako kutsadura maila baimendutako balio mugen azpitik dagoela, baina neurgailua ipintzea erabaki dutela, egoera "hobeto kontrolatzeko". Orain arte probak egiten ibili dira, eta laster hasiko dira datuak argitaratzen.

Bentzeno isuriaren harira, neurri zuzentzaileak exijitu zizkieten Fumbarri eta Funsan fundizioei.



Airea neurtzeko furgoneta, Tabiran, aurreko kanpaina batean.

mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

Tel. 688856283
info@mendexapark.com
www.mendexapark.com

Instagram Facebook Twitter Google+

merkataritza gida sarean anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtea 50€)

Arripausuetako presa eta pasabidea desagertzeko arriskuan daude, enpresa eraikitzaile batek obra egitea eskatu eta gero

Enpresa batek Txibitenan etxeak egiteko proiektua dauka, eta URA agentzia publikoak Ibaizabal erreka bideratzeko baimena eman dio



Goian, presaren gaur egungo irudia. Behean, 1980an Jose Mari Uriartek ateratako argazkia, umeak harri-pausuetan jolasean daudela.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Arripausuetako presa eta harri-pausuen pasabidea desagertzeko arriskuan daude, enpresa eraikitzaile batek obra egiteko asmoa agertu eta gero. Obra hori egiteko, URA agentzia publikoak Ibaizabal erreka bideratzeko baimena eman dio, eta udalak kontraktorik esan ezean aurrera egingo du. Segurtasuna, ingurumena, asmo ekonomikoak eta ondare historikoa gurutzatzen diren gai bat da.

Bizkaiko buletin ofizialaren maiatzaren 14ko edizioan argitaratu zuen URA obrarako baimena. Presa, harri-pausoak eta apur bat

beherago dagoen Iurretarako zubia –Deabruaren zubia lez ezagutzen zena ahalbidetzen du. Eskatzailea Inmoloiola Arripauseta SL enpresa da, Txibitenan etxeak egiteko proiektu bat duena. Eremua errekatik gertu dagoenez, ur maila igotzerakoan segurtasuna irabazteko helburua izango du obrak. Baimenaren agindua argitaratu zenetik, 30 eguneko epea ipini zuten alegazioak aurkezteko; beraz, azkenetan dago epe hori.

Babestu beharrekoa

Kontua da Arripauseta eta Deabruaren zubia babestu beha-

Babestu beharreko elementu interesgarritzat izendatuta ditu udalak bere arau subsidiarioetan

Deabruaren zubia eraitsi eta oinezkoentzat pasagune bat sortu gura dute obragaz

rreko elementu interesgarritzat izendatuta dauzkala udalak bere arau subsidiarioetan. Arripauseta-gaz batera, herriko beste 30 puntu ditu zerrendatuta: Kurutzia-gaz, Santa Anako eta San Agustingo presak, Nebera, Andra Mariko elizpea, Santa Anako arkua... Aparte, 46 eraikin ere badaude babestu beharrekoak katalogatuta.

"Memoria kolektiboa"

Arripausuetaren balioaz galdetuta, babesteko hainbat arrazoi eman ditu Jose Mari Uriarte historialari durangarrak. Lehenik, memoria

kolektiboa aipatu du: "Memoria kolektiboan garrantzi handia izan du, igeri egiteko *eskola* izan baitzen belaunaldi batentzat. Adibidez, neuk ere han ikasi nuen igeri egiten". 60ko hamarkadan kokatzen ditu akordu horiek Uriartek. Sasoi hartan ura garbi zetorrela dio eta, gero, industriaren etorrerak eremu hartan bainatzeko ohituraren eragin zuela. "Gogoratzen dut egun batean, bat-batean, Ibaizabal osoa gorri agertu zela. Eta milaka arrain ur azalean hilda. Isurketa basatia izan zen". Joseba Sarrionandiak ere inguru hori gogoan du Ibaia abestian: *Erreka labur mehe, herdoil urez betea. Han ibiltzen ginen, antzina, hango harri-pausuetan.*

Bonbetatik ihes egiteko

Harri-pausuei dagokienez, Uriartek azaldu du ez dagoela eraikuntza horren dataziorik, baina gerra aurretik ipinita zeudela. "Are gehiago, bonbardaketan jende askok hortik egin zuen ihes mendirantz", esplikatu du. Beraz, bonbardaketaren memoriagaz ere badu lotura.

Udaletik azaldu dutenez, URAren proposamena eta alegazio posibleak aztertu behar dituzte

Deabruaren zubia eraitsi eta oinezkoentzat pasagune bat sortu gura dute orain proposatutako obragaz. Uriartek zubia ere babestu beharrekoa dela dio: "XIX. mendekoa da, Iurretatik Durangora ura ekartzeko helburuz sortutakoa".

Udaletik azaldu dutenez, URAren proposamena eta alegazio posibleak aztertu behar dituzte, eta une hauetan teknikarien eskutik dago gaia. Ikusi beharko da ate joka dagoen gobernu aldaketak Arripausuetaren etorkizunean eraginik duen ala ez.

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{unte} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

Musika eguna

19:30 UMEEN TANBORRADA
JARRAIAN KALEJIRA "KALEAN TXARANGA"

Blues Deluxe
19:30 "BLUES DE LUXE"
TALDEAREN KONZERTUA

IURRETA
Ekainak 21
Junio

Elorrioko Udaleko garbitzaileen greba mugagabeak alarma piztu du haur eskolako familien artean

Apirilaren 29az geroztik, Elorrioko garbitzaileak greban daude; egoera konpondu arte, mobilizazioei eutsiko dietela esan dute



Eguaztenean, langileek elkarretaratzea egin zuten Bizkaiko hainbat delegatugaz batera, udaletxe aurrean.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko eraikin, eskola eta lokal publikoetako garbiketa zerbitzuko langileek greba mugagabea hasi zuten apirilaren 29an. Harrezkero, eraikinak garbitzeko gutxieneko zerbitzuak ezarri dituzte, eta horren arabera garbitzen dituzte herriko eraikin, eskola eta lokal publikoak. Gutxieneko zerbitzu horiek alarma piztu dute haur eskolako familien artean, eta "arduratuta" daudela jakitera eman dute. "Gu-

txieneko zerbitzuak ez dira nahikoa. Geletako apalak, umeak aldatzekoak... ez dira denbora askoan garbitu, eta horrek ume gehiago gaixotzea ekarri du", adierazi dute haurreskolako familiek.

Egoeragaz "arduratuta" daudela jakitera eman dute Elorrioko haur eskolako familiek

Ikuskaria haur eskolan birritan egon eta gero, astelehenean garbiketa orokorra egin zuten. "Ume asko gaixotzen hasi dira: konjuntibitisa, dermatitisa, granoak... ugaritzen hasi zaizkie, eta oso arduratuta gaude egoeragaz. Asteon egin dute garbiketa orokorra, baina hemendik hamabost egunera berdin egongo gara", kexatu dira gurasoak.

Bestalde, Elorrioko Udalera eta Patzuergora jo dutela adierazi dute

gurasoek. "Ulertzen dugu langileek greba egitea. Gainera, euren esku-bidea da. Gutxieneko zerbitzuak betetzea da gure ardura", azaldu dute.

Elkarretaratzea udaletxean

Bestalde, Elorrioko Udaleko garbiketa zerbitzuko 15 langileek, Bizkaiko hainbat delegatu sindikalen babesagaz, elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurrean, eguaztenean. "Elorrioko Udalaren jarrera salatzen kontzentratu gara", adierazi zuen Mari Cruz Elkoro ELA sindikatuko kideak.

Beharginek 45 egun baino gehiago daramatzate greban da-goeneke, eta "jasandako murrizketak amaitzea", langileen "lan-kargetan hobekuntzak egitea" eta kale garbitzaileekiko "soldata arrakala" amaitzea eskatzen dute.

Bere aldetik, Elorrioko Udalak adierazi du martxoaren 11n batu zirela lehenengoz sindikatuagaz, eta harrezkero hartu-emanen egon direla. "2020rako, %10eko soldata igoera proposatu dugu, eta 2021erako eta 2022rako, urte horiei dagokien KPIa. Baina, gure harri-durarako, ELAk grebagaz jarraitzea erabaki zuen", azaldu du gobernu taldeak.

Bestalde, sindikatuaren azken proposamena urte bian %20ko gehikuntza egitea izan dela nabarmendu du gobernu taldeak. "Igoera horrek publikazioak baino kostu handiagoa dakar", azaldu dute. Horrez gainera, egoera ez dela inorentzat eroso eta "onera ekartzeko" lanean jarraituko dutela esan dute.



Domekan, Kulturarteko jaia ospatuko dute Berrizen, Legaño auzoko jaietan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste urte batez, Kulturarteko jaia ospatuko dute Berrizen, Legaño auzoko jaietan topaketa eginda. 12:00etan hasiko da jaia, Berrizko dantza taldearen saioagaz. Ondoren, hainbat ikastaro egongo da, eta baita zirku ikuskizuna ere.

13:30ean, munduko janari dastaketa egongo da. Ekimen honen bitartez, zenbait kulturatako jakiak dastatzeko aukera izango dute Legañoa bertaratzaren direnek.

Kawadeni afrikar perkusio eta dantza taldearen ikuskizunagaz emango diote amaiera domekako kulturarteko jaiari Legañoan.



Umeek jolasgune berria izango dute Apatan, Ziarreta auzoaren atzealdean

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko umeek jolasgune berria izango dute asteburutik aurrera. Udalak jakitera eman duenez, umeentzako gune berri bat atondu dute Ziarreta auzoaren atzealdean, erreka ondoko parkean.

Oharrean azaldu dutenez, hainbat gurasok auzolanean jolas parke bat egiteko eskaria egin zioten udalari, eta material naturalak (zura, lurra eta hareak) erabili dute jakitera eman dute.

Bestalde, parkea egiteko, 1.000 euroko inbertsioa egin dutela eta helburua umeen sormena eta mugikortasuna sustatzea dela esan dute.

Antzinako ogibideak ezagutzeko aukera egongo da San Agustinen, zapatuan

Aro Modernoko arropa jantzi eta erakustaldia egingo dute auzoko familiek

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

San Agustingo Olazar auzo elkar-teak Antzinako Ogibideen Azoka antolatzen du urte birik behin. Aurtengoa bederatzigarren aldia da, eta, ohitura duten moduan, auzoko familiak Aro Modernoko jantzitan irtengo dira, lehengo eran egiten ziren artisau-lanen erakustaldia egiteko. Aurten arte, Erdi Aroaren itxura eman diote auzoari, baina aurten XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera lantzen ahaleginduko direla jakitera eman dute an-



Urte birik behin antolatzen dute azoka.

tolatzaileek. "Gure aitita-amamen sasoiko ogibideak erakutsi gura ditugu, gaur egun desagertuta daudenak", nabarmendu dute.

Olazar auzo elkarteko kideek XIX. mende amaiera eta XX. mende hasiera landuko dute

Olazar auzo elkartekoek egun osoko egitaraua antolatu dute zapatarako. 11:00etan hasita, San Agustinerako doazenez azoka ikusteko aukera izango dute. 13:00etan, erakusketen azalpenak emango dituzte eta, 15:00etan, bazkaria egingo dute.



lazko azaroan Bigarren Eskuko Azoka antolatu zuen Plazaratu mugimenduak

Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute Iurretan ekainaren 22rako, Plazaratu Astearen barruan

Ekainaren 18tik 23ra bitartean, ekintza ugari eta anitzak egongo dira herriko plaza biziberritzeko asmoz

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Bigarren Eskuko Azoka antolatu dute Iurretan, Plazaratu Astearen barruan. Ekainaren 22an izango da, 10:30etik 14:30era, eta, arropa eta tresnen berrerabilpena sustatzeaz gainera, kultur aniztasuna ere sustatuko dute. Izan ere, jatorri anitzetako jatekoa dastatu ahalko da, herriko komunitate kulturelek eskainita. Bestalde, 22:00etan, Boluda Kabaretak antzoki handi

bihurtuko du plaza, Cecilia Paganini eta Gorka Ganso artisten eskutik.

Urtea beteko da laster Plazaratu mugimendua jaio zenetik, eta

Abadetxearen historiari buruzko berbaldia eta argazki erakusketa egongo dira ekainaren 21ean

dinamikari jauzi bat emango dio egun hauetan. Ekainaren 18tik 23ra bitartean, ekintza ugari eta anitzak egongo dira herriko plaza biziberritzeko asmoz. Herriko talde, sortzaile eta herritarren partaidetza bultzatuko dute ekintzetan.

Abadetxearen historiari buruzko berbaldia eta argazki erakusketa egongo dira, ekainaren 21ean. "Abadetxea garrantzi handikoa izan da plazako bizitzan hamarkada askoan, eta hutsik dagoenetik eragina igarri da herriko mugimendu soziokulturetan", diote.



Udalak Eskuagatzen dituen lurren mugatzea egin zuten eguaztenean

IZURTZA • J.D.

Ikerketa batek bere sasoian azaleratu zuenez, Izurtzako Udalaren jabetzakoa den lurzati bat dago Eskuagatx mendian. Mañaritik Urkiolara igotzen hasi eta eskumako mendi hega-

Izurtzako Udaleko eta Bizkaiko Aldundiko ordezkariak, eta lur-jabe pribatu batzuk batu ziren

lean dago eta 53 hektarea ditu. Izurtzako lur horien mugaketa ofizial egiteko, ekitaldi bat egin zuten eguaztenean, lurzati hori dagoen inguruan bertan. Besteak beste, Izurtzako Udaleko ordezkariak, lurzatiaren perimetroko lur-jabe pribatuak eta Aldundiko ordezkariak batu ziren. Aldundiko kideen azalpenak entzun eta lurzatiaren behealdeko mugarriak markatu zituzten. Hilaren 19an berriro elkartuko dira goialdeko mugarriak markatzeko.

ESKAINITZA ERREPIKAEZINA SAN ROKE BIDEA - DURANGO



200.000€ -tik aurrera

1, 2, 3 eta 4
logelako pisuak

%100eko hipoteka
finantziarioa eta 40 urtera arte
(bezeroaren baldintzen arabera)



8.000€ -tik aurrera

25 m²-ko
garaje plazak



149.000€ -tik aurrera

83 m²-tik gorako
lokal komertzialak

DEITU ETA INFORMA ZAITEZ

aliseda
Inmobiliaria

900 649 064
alisedainmobiliaria.com

Banco Santander-ek onartu beharreko finantziarioa. Zatoz zure bulegora informazio fitxa pertsonalizatua eskatzeko (FIPER)

Zaldibarko argiteriaren %90 LED motakoa izango da obren 5. fasea amaitutakoan

ZALDIBAR • A.M.
Bosgarren fase hau amaitu eta gero, Zaldibarko argiteriaren %90 LED motakoa izango da. Fase honetako lanak egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EVE Energiaren Euskal Erakundeak diruz laguntzea lortu du Zaldibarko Udalak. Horrela, 63.000 euroko diru ekarpena jasoko dute obrari ekiteko. Gainerako 17.000 euroak udalak berak ipiniko ditu. Udalak urteetan eduki du helburuen artean argiteria sarea hobetzea, auzoetako, batez ere. Honegaz batera, bideak konpontzeko eta auzoen izenekin seinaleak ipintzeko asmoa ere agertu du Zaldibarko Udalak. 2019ko aurrekontu proposamenean garrantzia du proiektuak.

Otxandioko gune batzuk margotu dituzte, oinezkoek lehentasuna izateko

OTXANDIO • J.D.
Herriko hainbat puntutan erre-pidea margotu dute, oinezkoek lehentasuna dutela adierazteko. Ospital kalea da toki horietariko bat, Indusi inguruan bizi direnak herrigunera joateko ohiko pasabidea delako. Puntu horretan auto batek eta oinezko batek bat egiten badute, autoak geratu egin behar duela gogoraraztea da helburua. Gune horietan, asfaltu inprimatua eta seinaleztapen bereziak ere jarri ditu udalak.

Mallabiko Goita auzoan San Juan jaiak ospatuko dituzte, ekainaren 21tik 24ra

MALLABIA • J.D.
Ekainaren 21ean jasoko dute txopoa jaiei hasiera emateko, 20:30ean. Hurrengo eguneko arratsaldean, patata tortilla txapelketa eta askotariko jolasak egongo dira. Ekainaren 23ko domekan, 11:00etako meza-ren ostean, Gazte Alai dantza taldeak saioa eskainiko du eta Bittor Altube, Ander Sarriugarte eta Irune Basagoiti bertsoan arituko dira. 18:00etan bola jokoa egongo da eta iluntzean San Juan sua piztuko dute.

Lebario auzoko inguruetan autoek hartzen duten abiaduraz kexu dira bertako bizilagunak

Datorren udal gobernu berriaren eskuan egongo dira segurtasun neurrien inguruan hartuko diren erabakiak

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO
Lebario ingurueta-ko bizilagunak arduratuta daude autoen joan-etorriagaz. Izan ere, egoera arrisku-tsuek gora egin dute azkenaldian. Antonio Iturriagagoitia da bizilagun horietariko bat, eta inguruan autoak bizkorregi doazela salatu du: "30 kilometro orduko tarteak dira, eta asko 50-60 kilometro orduko abiaduran doaz". Iturriagagoitiaren ustetan, Euskotrenek bertan duen eraikina egiteko obrak amaitu ondoren, nabarmen egin du gora bertatik igarotzen den trafikoak. "Lehen ere bazegoen joan-etorria, baina obrak egin zirenetik 800 metroko aldea dute orain langileek, eta esango nuke hirukoiztu egin dela autoen trafikoa inguruetan".
Udan jende gehiago dabil bertatik, eta arazoak "okerrera" egin dezakeela uste dute bizilagunek. Euren egoera Durangoko Eguskiza ingurueta-koagaz alderatu dute. "Lantegietan txanda aldatetako daudenean sortzen dira arazorik handienak", dio Iturriagagoitiak.



Langileen txanda aldatetetan, arazoa nabarmena dela salatu dute bizilagunek.

Udalaren erantzuna
Kexa udalera helarazi arren, Iturriagagoitiak ez du esperantza gehiegirik. "Neurriak hartu izan direnean, adibidez obregatik bidea zintekin itxi denean, era-

biltzaileek apurtu egin dituzte... Hauteskunde kanpaina ere igarri da", esan du. Hain zuzen ere,

30 km/h-ko tarteetan, autoak 50-60 km/h-ko abiaduran doazela salatu dute bizilagunek

hauteskundeei eta gobernu aldatetari egotzi die Jose Luis Navarro jarduneko alkateak erabaki

Udal gobernu berria eratzean, arazori konponbidea ematea gura dute bizilagunek

eta neurrien gabeziari. "Kexak heldu dira udalera, eta pasagune altuak eta seinaleak ipini behar direla deritzogu. Hala ere, neurri zigortzaileak ezarri ezean, arazoak konponbiderik ez duela uste dugu. Orain udal gobernu berriari dagokio erabakiak hartu eta hauek martxan jartzea", esan du Navarrok.

Eneko Atxa sukaldariak sasoiko produktuekin egindako Udaberriko Menua jan dute Galdakaoko Ospitalean

Elikadura osasuntsua eta jasagarritasuna sustatzeko, ospitalean abiatutako hiru proiektuetariko bat da



Eneko Atxa eta ekimeneko sustatzaileak, martitzenean eskaini zuten menuagaz.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO
Elikadura osasuntsua eta garapen jasagarria sustatzeko helburuz, hiru proiektu abiatu dituzte Barrialde-Galdakao Erakunde Sanitarioak eta Basque Know How Fundazioak elkarlanean. Eurretako batek Eneko Atxa du protagonista. Sukaldari zornotzarrak, ospitaleko elikadura zerbitzuko langileekin era koordinatuan jardunez, urtean lau menu prestatuko ditu, urtaro bakoitzeko bat. Martitzenean, ospitaleko pazienteek Udaberriko Menua dastatu zuten.
"Gure ezagutza osasunaren mesedetan jarri gura dugu, eta, hala, gastronomia ondo jateko tresna izatea gura dugu; pazienteen bizitza-beharretara egokitu gura dugu", azaldu zuen Atxak aurkezpenean.

Bigarren proiektuaren barruan, Deustuko Unibertsitateko 46 ingeniari ospitaleko erretiluak berridiseinatuko dituzte elkarlanean. Erizaintzako profesionalekin, pa-

"Gure ezagutza osasunaren mesedetan jarri gura dugu", azaldu du sukaldari zornotzarrak

zientee-kin eta euren senideekin batu dira informazioa batzeko.
Azken proiektuaren bitartez, ospitaleko material informatiboa modu erakargarriagoan erakutsiko dute, EHUKo Arte Ederretako ikasle-
laguntzagaz.



Garain ateratako argazkia, nagusi bat umeei istorioak kontatzen dabilela.



Zubiaurre familiaren erretratua.

Zubiaurre anaien argazki eta bideo sorta ikusgai dago Elizabarrin, Arte Ederren Museoak berreskuratu eta gero

Garaiko anaia margolari ezagunek egindako 1.200 argazki eta 27 film eskuratu dituzte familiaren bitartez

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Abuztuaren 4ra arteko asteburuetan, Valentin eta Ramon Zubiaurre anaia margolarien argazki eta bideo sorta bat ikusi ahalko da Elizabarrin. Bilboko Arte Ederren Museoak berreskuratutakoak dira, eta udalaren laguntzagaz daude ikusgai. Sortzaileen jaioterrian ikusgai daudenetatik aparte, beste maki-

na bat obra ikusi daitezke Bilboko museoan. Izan ere, 1.200 argazki eta 27 film dira jasotakoak. Familiarengandik eskuratutako materiala da, eta margolari ospetsu biek euren bizitzako unerentzatean argazkilaritza eta zinema landu zituztela erakusten du. Artistikoki, familia bizitzako kronikak osatzeko baliagarri dira lanak, batez ere aisian eta

Garaiko eta Euskal Herriko paisaiak zein pertsonak agertzen dira, adibidez

olgeta jardueretan oinarrituta. Garaiko eta Euskal Herriko paisaiak zein pertsonak agertzen dira, adibidez. Aitaren lana zela-eta, Madrilera joan ziren bizitzera, baina udan egonaldi luzeak egiten zituzten Garain eta Ondarroan. **Aita eta arreba ere bai** Zubiaurretarrena artistaz beteri-

ko familia izan zen. Aita Valentin musikari ospetsua izan zen, besteak beste Errege Kaperako zuzendari izana, eta Hego Amerikan irakasle. Seme biak gorrak ziren, eta sen kulturala margolanen bitartez hedatu zuten, batez ere. Euren arreba Pilarri buruz guxtiago berba egin izan da, beste hainbat emakumeren moduan bere ekarpena gerizpean geratu zen eta. Hala ere, Espainiako emakume intelektuaren lehen elkartearen Lyceum Clubeko partaidea izan zen Errepublikako saioan, Clara Campoamor, Maria Maeztu, Victoria Kent eta beste hainbat emakume lagun zituela.

Amaitzear dago oroimenaren eta elkartasunaren murala

6 metroko altuera eta 28 bat metroko zabalera ditu

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Oroimena eta elkartasuna mural batean batzen dituen irudia amaitzear dago. Diseinua horma irudira eramateko ardura duen Wallart enpresako kideak hainbat astez lanean aritu dira eta horma irudiko alde bateko zatitxo bat bakarrik falta zaie lana amaitzeko. 6 metroko altuera eta 28 metroko zabalera ditu irudiak, eta hain-

bat osagai izango ditu. Alde batean, soldadu bat marraztu dute, Saibigaineko batailari erreferentzia egiten diona. Bere gainetik gerrako hegazkin bi ikusi daitezke hegan. Beste aldean, gerra zibilak eragindako errefuxiatuen drama islatu dute. Horrela, oroimena landu ez ezik, udalak gogoratu gura du sasoi batean euskaldunak ere errefuxiatuak izan zirela gerraren eraginez.



Frontoiaren atzealdean dagoen muraleko irudia.

KURUTZIAGA ARTE EDERRETAKO AKADEMIA

Uztailean ikas ezazu margotzen!

IKASTARO BEREZIAK!
Eskatu informazioa eragozpenik barik
Tel.: 946 030 527 / 679 657 676
www.academiakurutziaga.com
Kurutzia, 24 DURANGO

Helduentzako ikastaroak

Haurrentzako ikastaroak

ARBIZUKO EKOKANPINA

www.campingarbizu.com
Tel.: 848 470 922
Jatetxerako erreserbak: 635 093 140

INGURUAZ GOZATZEKO LEKU ZORAGARRIA - ETXETXO BERRIAK ALOKAIRUAN



ZORNOTZAKO MUSIKA BANDA

Hareek denporak!

ONDARE MUSIKALA BERRESKURATZEN

43 urteren ondoren, bueltan da berriro Zornotzako Musika Banda. Zapatuan, ekainak 15, aurkezpen kontzertua eskainiko du bandak Zornotza Aretoan, 19:30ean. Hartara, 1903an hasitako proiektuari berriro helduko diote lau hamarkadako etenaldiaren ondoren. Hasierako sasoi hartan, ehun bat zornotzarrek osatzen zuten banda, eta domekak eta jaiegunak girotzeaz

arduratzen ziren. Agente kultural garrantzitsua izan zen Zornotzan, 1947an desagertu zen arte. Aritz Labrador gaztea izango da zuzendaria, eta Zornotzako bizitza kulturalen parte hartzeko asmoa agertu du, jaietan zein kalerik kale. Hogei musikarigaz batera helduko dio Zornotzako ondare musikala berreskuratzeko erronkari (Kontzertuan 35 musikarik parte hartuko dute).

Durungaldea asteen



Alluitz mendiaren tontorrean buzoia ipini dute, sasoi batean zegoenaren erreplika

Abadiño | Aspalditik hona ez da buzoirik egon Alluitz mendi tontorrean, eta joan den asteburuan bat ipini dute. Eibarko mendi taldeak Indalecio Ojanguren (Eibar, 1887-1972) argazkilari eta mendizalearen artxibategian arakatu du eta Alluitz tontorrean sasoi batean zegoen buzoia argazkiak aurkitu ditu. Irudi horiek eredu hartuta, Gotzon Irazola elorriarrak eta Egoitz Elduayen eibartarrak buzoia erreplika bat egin dute, urteetan zehar mendizaleek eginiko dohaintzagaz.

Tabirako jaietako mendi martxarako inskripzioa hasi dute antolatzaileek

Durango | Rio de Oro elkarteak antolatu izan duen mendi martxa eta lasterketa ez da egingo aurten, baina Tabirako jai batzordeak ekimenari eustea erabaki du. Horregatik, hasi dute dagoeneko bertan parte hartzeko inskripzioa. www.kirolprobak.com atarian eman behar dute izena interesdunek. Ekainaren 23an izango da Tabirako martxa hori.

Iritzia

Aita

Hamabi urte egin dituzu maite duzun herriko alkate. Pasioz bete duzu zure kargua, baina deskantsurako ordua dela erabaki duzu. Deskantsu diogu, baina badakigu orain arte bezala lanean jarraituko duzula gure herri txiki hau, Garai, aurrera ateratzen, herritar gisa egin ahal duzunean lagunduz.

Oraindik gogoan dugu 2007ko hauteskunde eguna. Poztasun handiz hartu genituen emaitzak. Orduan geneukan taldearen babesa eta ezerk geldituko ez gintuela sentitu genuen. Polita izan zen iraun zuen bitartean. Ez zen denbora asko pasatu jendea taldetik aldentzen hasi zenean, herritar zein herritar ez direnen mehatxuak jaso genituenean, jendea gaizkiesaka ibiltzen hastea, jendeak albo batera uztea, eta abar. Hasierako babes hori sentitu gabe. Gogorra izan da, ez dugu ukatuko. Baina denari aurre egin diozu, gure herri maitea erdian jarri eta honen alde borrokatuz. Lau urte gutxi balira, beste birritan aurkeztu eta aurrera!

Hau guztia zure ondoan bizita ere, herria maitatzen erakutsi diguzu, aita, eta gora-beheren aurrean gogoz aurrera jarraitzen, maite dugun horren alde borrokatzen. Egon ziur horretan jarraituko dugula gogotsu.

Egin duzun lanaz eta zutaz harro gaudel!
Maite zaitugu!

Alazne Sarrigoitia Unzueta, Eneko Sarrigoitia Unzueta eta Lurdes Unzueta Arza.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAK 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARARI laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**

▪ autoen gehigarria 2019



HIPER EROSKI ABADIÑO

Murueta auzoa, z/g
Abadiño



Aurreztu

%
4€

EROSKI
erosten duzun
guztian

Uneko
txartel berria
DOAN
inibete bidez

EROSKI club

Andraguneak mekanika ikastaroak antolatu ditu emakumeak ahalduntzeko

Urtarrilaren 8tik maiatzaren 21era, 10 emakumek mekanika ikastaroan parte hartu dute Iurretako Institutuan, Paz Carbajosa mekanikariagaz

DURANGO • JONE GUENETXEA

Emakumeok mekanika kontuetan ezin garela trebeak izan behin eta berriro transmititu diguten estereotipoa da. Ideia horiek ezeresean gelditu dira Andraguneak antolatu dituen mekanika tailerretan parte hartu duten emakumeentzat. Urtarrilaren 8tik 21era bitartean,

hamar emakumek mekanikari buruzko hamazortzi saioko ikastaro

"Gura zein ez, estereotipoekin hazi garela konturatzeko balio dute ikastaro hauek"

batean parte hartu dute. Besteak beste, tailerreko erremintak ezagutu eta erabili dituzte, eta gurpilak aldatzen, motorra desmuntatzen eta kotxearen mantenua euren kabuz egiten ikasi dute. Paz Carbajosa Dalmau mekanikariak eman du ikastaroa. Bakoitzak bere kotxea eramateko aukera izan du, ikasita-

koa praktikan jartzeko. "Iurretako Institutuak erraztasun guztiak

"Iurretako Institutuak erraztasun guztiak eman dizkigu tailerrean ikasi ahal izateko"

ikastaro hauek. Esan digute hau ez dagoela guretzat eginda". Ikastaro honen bitartez, ahalduntzeko eta autonomia lantzeko bidea zabaldu dute. "Beti izan gara besteen laguntzaileak. Ikastaro honen bitartez, guk geuk ikasi dezakegu, eta oso trebeak garela konturatu gaitzake". Autoestimua lantzeko ere balio izan du. "Funtzionatzen ez zuena martxan jartzeak ahaldundu egiten du. Autogestiorako pausoak emateko ere balio du", gaineratu du irakasleak. Bestalde, konponketa asko norberak egitera, poltsikoak ere igartzen du.

Hirugarren aldia

Andraguneak hirugarrenez antolatu du mekanika ikastaroa. "Oso polita da emakumeen aldaketa ikustea ikastaroak aurrera egiten duen heinean. Hasieran, zerbaitek ez die funtzionatzen eta gelditu egiten dira. Baina, azkenean, trebezia itzela hartzen dute. Erremintak zelan erabili ere ez dute jakiten hasieran. Gero, tailerrean aurrera eta atzera ibiltzen dira, eta torlojuak abilezia handiagaz kentzen hasten dira", dio Carbajosak.



Mekanika ikastaroan parte hartu dutenen talde argazkia.



Garaje Miguel
Arzubia, 10A - 1 Pabiloia
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 91 61
www.garajemiguel.es



**GARBIKETA · TAPIZERIAK
MEKANIKA · GURPILAK**




**DESGUACES
PILASTRA**

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketak
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

☎ **Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079**
☎ **Osagarrien salmenta: 946 201 787**
e-mail: desguacespilastra@gmail.com
Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA
(Zugastietara bidean)



GnG ELORRIO
KONFIANTZAZKO TAILERRAK



GnG ELORRIO
POL. SAN AGUSTÍN 1 - ELORRIO
TLF. 637 720 071



AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-mail: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

MOTOS TABIRA
KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

**DOAKO ASEGURUA
ITZULI DA KEWAY
125CC GUZTIETARAKO**

Tel./Faxa: 94 681 40 68
motostabira@outlook.es
www.motostabira.es
Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO





ELECTRO  MOBILITY
experience



www.gaursaelectromobilityexperience.com
#ecogaursa #electromobilityexperience

PASA ZAITEZ IBILGAILU ELEKTRIKORA GAURSAREKIN

Mugikortasun elektrikoa gakoetako bat da iraunkorragoa den modelo energetikorako jauzian, airearen kalitatea hobetzen duelako eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan laguntzen duelako.

Alde horretatik, Gaur sarearen apustua irmoa da: Euskadin erreferentziazko erakundea izatea mugikortasun iraunkorrean.

%100 elektrikoak diren ibilgailuen fabrikazio eta salmentaren merkatuan liderrak diren markak babestuta, Gaur sareak iraunkortasuna eta berrikuntza lehenesten ditu bere negozio estrategiaren ardatzean. Horretarako, birziklapenean eta materialen berrerabilpenean lan egiten du egunero, bere bezeroei irtenbide integral eta pertsonalizatuak eskainiz garraio alternatiboari dagokionez. Eta horrek aldaketaren erreferente nagusi bilakatzen du energia sistema iraunkor bat lortzera bidean.

Ibilgailu elektrikoak buruz kontsumitzaileak duen informazio

gabeziari aurre egiteko asmoz, Gaur sareak inguruko zenbait ekimen eta jardueratan parte hartzen du: Berdeagon, eraginkortasun energetikoaren azokan, Eco Drive-n... Horrez gainera, hainbat erakunde eta organizazioekin kolaboratzen du, bere langileei 360ko esperientziak eskainiz mugikortasun elektrikoaren eskaintzari dagokionez: ibilgailuaren ezagutza eta aproba, erabiltzearen kostuaren azterketa pertsonalizatua, errekarga azpiegitura... Beraz, planteamendu integral eta pertsonalizatua da, ibilgailu elektrikoaren demokratizazioa dakarrena. Horrela, mugikortasunari dagokionez, euren bizi estiloari egokitutako irtenbide iraunkorra ematen zaie herritarrei.

Zure beharrianetarako egokia den irtenbidea proposatzen dizugu



Ibilgailu elektriko bat probatu nahi duzu?

>>> Zatoz Gaur sareara eta proba ezazu 0 emisio gure gama

www.gaursa.com





Zornotzako gunea San Migel kaleko 18. zenbakiaren aurrean dago.



Elorrioko gunea Nizeto Urkizu aparkalekuan dago.

Elorrion eta Zornotzan ibilgailu elektrikoak kargatzeko aukera dago

Eskualdeko lehenengo auto elektrikoen gunea 2018 amaieran ipini zuten martxan, Elorrion; Zornotzako gunea, oster, ekainaren 1etik dago erabilgarri

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Apurka-apurka, auto elektrikoak euren tokia egiten ari dira, eta horren adibide dira eskualdean azken hileetan jarri dituzten autoak kargatzeko guneak. Elorrion, 2018 amaieran ipini zuten eskualdeko lehenengo auto elektrikoen pun-

Mugikortasun jasangarria sustatu eta erabiltzaileen beharrak asetzeko jarri dute puntua

tua, Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuan. Elorrioko Udalak jakinarazi

duenez, mugikortasun jasangarria sustatu eta auto elektrikoen erabiltzaileen beharrianak asetzeko asmoz, mota horretako karga puntua instalatzea erabaki zuten. "Elorrioren jasangarritasunak arduratzen gaitu. Beraz, gure eskuan dagoen guztia egingo dugu alderdi honetan hobetzen joateko", esan zuen Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Prentsa ohar bitartez jakitera eman dutenez, errenergia puntuan hargune bi daude, baikotza 7,4 kW-ko potentziaduna.

Zornotzan ere martxan

Bestalde, ekainaren 1az geroztik, Zornotzak ibilgailu elektrikoen-

tzako karga azkarreko lehenengo kargagailu bikoitza du. San Migel kaleko 18. zenbakiaren aurrean dago. Kargagailua udalarena da eta

Zornotzako errenergia puntua ibilgailu bi batera hornitzeko aukera ematen du

Zornotzan zein Elorrion dauden kargagailuak erabiltzeko, aplikazio bat instalatu beharko da

entxufatu daitezkeen ibilgailu elektriko eta hibridoek erabili dezakete. Ibilgailu bi batera hornitzeko aukera ematen du, guztira 43 kW-ko potentziagaz, udalak ohar batean informatu duenez.

Karga aplikazio bitartez

Zornotzan zein Elorrion dauden kargagailuak erabiltzeko, aplikazio bat instalatuta izan beharko dute erabiltzaileek euren telefono mugikorrean. Aplikazio hori erabili beharko da erabiltzailea erregistratzeko, tasa ordaintzeko edo egun eta ordu konkretu baterako kargagailua erreserbatzeko. Bestalde, instalatu ondorengo lehenengo

urtean, kargatzea doakoa izango dela azaldu du Zornotzako Udalak oharrean.

Ibilgailuak gehienez ere lau orduan egon ahal izango direla azaldu du Zornotzako Udalak

Horrez gainera, auto elektrikoak kargatzeko Zornotzan ipini dituzten leku bi horietan, ibilgailuak gehienez ere lau orduan egon ahal izango direla jakitera eman dute Zornotzako Udaleko kideek.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



Tiguanek nortasun propioa duten SUV autoak bildu ditu

Volkswagen etxeak landa eremurako eta hiriguneetarako baliagarriak diren ibilgailu hauen aldeko apustua egin du



Arteon-Touareg-Golf.

PUBLIERREPORTAJEA • A.M.

Azken urteetan, SUV autoek sona handia hartu dute motorgintzan, eta auto etxe askotako erakusleihatoko izarrak dira. SUV izena

Sport Utility Vehicle-tik dator, eta auto misto hauek turismoen praktikotasuna eta jeepen sendotasuna batzen dituzte. SUV autoen aurrerakari historikoa Bigarren Mundu

Gerra osteko kamionetak dira, ibilgailu arinak eta espazio handikoak. Egun ezagutzen diren ibilgailu erabiltzeraz eta modernoagoen itxura hartu zuten gerora.

Tiguan familia

Merkatuan duen garrantziaz ohartuta, Volkswagenek Tiguan belaunaldi oso bat sortu zuen orain hamarkada bat, SUV ibilgailuen

alde apustu handienetarikoa egin duen etxe bilakatuta. *Offroad* ezaugarriak eduki arren, hirigunea izan da beti Tiguanen indargunea. Tiguanaz gainera, beste modelo bik eurenagatu dute arreta. Alde batetik, T-Roc autoak. Bere anaia

Volkswagenek hamarkada bat baino gehiago darama Tiguan familia hobetzen

nagusia baino txikiagoa izan arren, sport itxura handiagoa du, gazteen-tzat aproposa. Landa eremuetarako egokia izan arren, batez ere hiriguneetan lortuko dute onura gidariek. Volkswagen Golf-aren antza du autoak, baina barrualde erosoagoa du. Horrez gainera, SUV batek altuera aldetik eskaintzen dituen abantailak ditu.

Bestetik, labetik atera berria den T-Cross berria. Modelo honek Polo klasikoa dakar gogora, bere tamainagatik eta erraz erabiltzen delako. Edukierari dagokionez, oso eroso

'Off Road' ezaugarriak eduki arren, auto mota hauek egokiak dira hiriguneetarako

da, eta duen kapazitateari errendimendu handia ateratzen dio.

Tiguan berriak azken berrikuntzak ditu teknologia aldetik. Volkswagenek arlo honetan eginko aurrerapen guztiak eskaintzen ditu; besteak beste, hirian edo landa eremuan ibiltzeko lagungarriak diren aplikazioak.



T-Roc.



T-Cross.



ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia

Tel.: 946 202 004 Faxe: 946 200 998

alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com

DISFRUTATZEKO TEKNOLOGIA



DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Azken asteburu bietan Euskal Herrian egin diren auto klasikoek erakustaldiak zenbatzen hasita, zerrenda luzea osatu dute Javi Morales eta Alain Zenigaonaindia durangarrek. Modan daudela diote. Eskuko Racing Eskuderiako kideak dira eta, zapaturako, Durangoko auto klasikoek erakustaldia antolatzen dute Landako Erakustazokan.

Zer ikusi daiteke erakustaldian?

Javi Morales: 90 bat auto klasiko batuko dira. Goizean, 11:00etan hasita, denok elkarregaz ibilbide bat egingo dugu, Muniketatik. 14:00etatik 20:00etara, autoak ikusgai egongo dira Landako Erakustazokan. Tarte horretan, sari banaketa egingo dugu. Aspanovas elkartearen stand bat ere egongo da. Elkarrekin kantzerra duten Bizkaiko umeei laguntzen die, eta eurekin kolaboratzen dugu.

Bisitariak kuriosoak izaten dira?

J.M.: Normalean, jendeak argazkiak ateratzen ditu. Interes gehiago dutenek autoa nondik ekarri dugun, noizkoa den, non berriztu dugun eta halakoak galdetzen dituzte.

Jabi, aurtengo aldia zure aitaren, Antonio Moralesen, oroimenezkoa da. Asko laguntzen zizun?

J.M.: Bai. Aita on baten moduan, ahalik eta gehien laguntzen zigun. Horretarako prest zegoen beti.

Baduzu berea izandako autorik?

J.M.: Bai, Seat 850 bat. Istorio bat dago horren atzean. Aitarena izandako auto hori eskurik esku ibili zen gerora. 20 urte geroago, Elx-ko autoak desegiteko toki batean aur-

“Azken urteetan, auto klasikoek boom bat izan da hemen, eta orain modan daude”

Banaka batzuk izatetik, Durangon biharko antolatu duten moduko erakustaldiak asteburu asko betetzera pasatu dira



Javi Morales eta Alain Zenigaonaindia
Auto klasikoek erakustaldiko antolatzaileak

“

Aitarena izandako autoa 20 urte geroago Elx-en aurkitu eta berriztu egin genuen”

JABI MORALES

kitu nuen. Eskuratu eta berriztu egin genuen. Auto berezia da niretzat, besoan tatuatua dut [tatuajea erakutsi du]. Aitak auto bi baino ez zituen eduki bizitza osoan. Bestea, Opel Kadett-a, Durangoko erakustazokaren erdi-erdian ipiniko dugu bihar, bere oroimenez.

Zenbat auto klasiko dituzue?

J.M.: Hamalau eduki ditut. Gaur egun lau ditut. Aipatutako Seat-agaz gainera, Chevrolet C10, Ford Scort eta Ford Granada familiarra ditut.

Alain Zenigaonaindia: Nik ez daukat bat ere. Buruhauste handia ematen

dute. Asko sufituko nuke, konponketa hau edo bestea behar duela pentsatuta bakarrik.

J.M.: Klasikoek munduan, gehiago dira autoa berriztea gustatzen zaientak. Gero, nire moduko jende arraroa dago, autoak hainbeste ez berritzekoak, bizi izan dutena bis-

Talleres Serafín S.Coop

Elorriagazar, 11
Tel.: 94 681 48 07
48220 MATIENA-ABADIÑO



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxes: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

Garage SAN MIGUEL

TallerXXI

**ESPEZIALISTAK DIESEL
ETA GASOLINA MOTOREAK
KONPONTZEN**

Dantzari auzunea, 8
IURRETA

Tel.: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garagesanmiguel.es



ARRIBIDE
.. GASOLINDEGIA ..

Arriaundi Industrialdea P1 - 48215 IURRETA Bizkaia
Tel. 946 818 381 - estacionservicio@arribide.com

www.arribide.com

DESGUACES MALLABIA

- Metalen erosketa: kobrea, brontzea, letoia, beruna, aluminioa, bateriak eta abar.
- Autoen birziklatzea balio-bizitza bukatzen zaienean.
- Ibilgailuen berreskuratzea.
- Ordezko piezen salmenta.



Mallabarrena Ind., 7 - 48269 MALLABIA
Tel./Faxa: 943 175490 - Mug.: 616 552 158

tan geratu dadin. Berrizteak balio ekonomikoa handitzen dio, baina xarma kentzen dio. Gas Monkey te-
lebista programa amerikarrak kalte handia eragin du (barrez).

Auto klasikoak eraberritu eta saldu egiten dituzte programan. Zergatik dlozu kaltea eragin duela?

J.M.: Tira, esateko modu bat da. Programa horretan, berriztutako autoak asko gustatzen zaizkion jendea dagoela hemen esan gura dut, ni neu barne: lurraren arrasean dauden autoak, hagin lodikoak...

A.Z.: Kontu estetikoak da. Autoen pertsonalizazioa beste maila batera eramane zuten.

Zein auto klasiko edukitzea gustatuko litzazuke? Ametsetako bat.

A.Z.: Nik oso argi dut: Citroen BX bat. Izan nuen lehenengo kotxea da. Ikaragarri gustatzen zait. Ez dakit zergatik. Oso auto zatarra dela esaten didate denek eta, bai, baliteke, baina badu zerbait berezia niretzat.

J.M.: Nik Ford A Hod Rod bat eduki gura nuke, 1930eko auto eraldatua. European ez dago horrelakorik, homologazio eta beste hamaika konturengatik. Ameriketara, oster, horretatik bizi dira asko, autoak eskuratu, pertsonalizatu eta saltzetik. **Ford A bat edo Porsche berri bat aukeran emanez gero, zein aukeratuko zenuke?**

A.Z.: Ford A hori, dudarik barik.

Nire ustez, ez dago Porcherik edo Ferraririk auto hura ordezkatu dezakeenik. Klasikoek historia bat dute gordeta, auto berriek ez dutena.

Ameriketako Estatu Batuak paradisu dira auto klasikoel dagokienez?

J.M.: Han askoz ere askatasun handiagoa dago. Auto baterako edozein pieza daukate. Baita orain dela ehun urteko auto baterako ere.

A.Z.: Ordezko pieza originalak izaten dira, gainera.

Auto klasikoek zale asko zarete?

J.M.: Azkenengo hiru bat urteotan, auto klasikoek boom bat izan da, eta modan daude. Gu hasi ginenean, urtean bost erakustaldi zeuden.

A.Z.: Plentzian, Usansolon, Durangon eta pare bat toki gehiagotan egiten ziren.

J.M.: Orain, astebururo daude. Tokian tokiko auto klasikoek elkarrekin presidentek *whatsapp* talde bat sortu dugu erakustaldien datak koordinatzeko, baina, hala ere, zaila da. Orain gutxi, Mallabian egin da bat; joan zen asteburuan, Arrasaten, Ortuellan eta Idiazabalen egin ziren; bihar, Durangokoa dago; eta domekan, Lemoakoa. Begira zelako zerrenda osatu dugun.

A.Z.: Garaje batean gordeta egotetik errepideetan inoiz baino kilometro gehiago egitera igaro dira. Modan daude, bai.



Gasteiztik, Donostiatik, Bilbotik eta beste hainbat tokitatik etorritako auto klasikoak Landako Erakustazokan batuko dira zapatu honetan..



Chevrolet C10 amerikarra, Javi Moralesek duen auto klasikoetariko bat.

CLA Coupe Berria. Zeuk ipintzen dituzu arauak.

Gozatu bere kiroltasuna, MBUX adimen artifiziala duen sistema, ahotsaren bidez aktibatzen dena, eta barruko diseinu zabalagoa.

CLA 180 Coupe orain aldaketa automatikoa duena 7G-DCT, AMG Line eta Premium paketea.

290€/hilean¹

48 kuotatan. Hasierako diru-ekarpina: 11.806,52€.
Renting Complete, segurua, bermea eta mantentze-lanak barne².

Kontsumo nahasia : 6,1-6,6 (l/100Km).
CO₂ isurtzea: 138-149 (g/km) (NEDC: 123-136).

¹Renting-adibidea: Mercedes-Benz Complete-rekin CLA 180 Coupe, Aldaketa automatikoa, AMG Line eta Premium Paketea dituen; hilean 290€-ren truke, BEZ barne. Sarrera 11.806,52€, BEZ barne, 48 kuotatan eta 80.000 km. Baloizko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat, pneumatikoak ez daude barne. Iraunkortasuna: 24 hilabete gutxienez. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A. Bruselas etorbidea, 30, 28108, Alcobendas (Madrid)-ek komertzializatzen duen marka da. ²Higadura-piezak barne, pneumatikoak izan ezik. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en Renting-adibidea Mercedes-Benz Complete-rekin: CLA 180 Coupe, aldaketa.



Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionario ofiziala

Retuerto kalea, 38.

48903 BARAKALDO.

Tel.: 94 497 00 74.

www.aguinaga.mercedes-benz.es

Parque Empresarial Boroa, Parc. 2A-3.

48340 ZORNOTZA.

Tel.: 94 630 17 47.

Botika Zaharra, z/g.

48014 BILBO (DEUSTU).

Tel.: 94 447 08 40.

Iparragirre etorbidea, 90.

48940 LEIOA.

Tel.: 94 463 11 75.

Ford Kuga EcoBoost

18.800€-gatik

Berrerosketa bermatuarekin

FCE Bank-eko Ford MultiOpción-ekin finantzatuta

FORD KONDIA

EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569

Bizitza kanpoan dago. Eta zu?

Ezagutu ezazu gure Ford Kuga, zure errutinatik kanpora bide berriak ezagutzera gonbidatzen zaituen ibilgailua, barruan duena ahaztu gabe: EcoBoost motorra, askorentzat gasolinazko munduko motorrik onena dena. Izan ere, Ford-ek, beste urtebetez, saria jaso du IEPOTY sariketan, 11.ez, EcoBoost 1.0 motorrari esker. Bere kategoriako motorrik moldakorrena da.



KONDIA

www.fordkondia.com

FORD KUGA GAMA AUKEARIK GABE: WLTP KONTSUMOA, ZIKLOMISTOA 6TIK 9,7 LITRORA/100 KM. CO₂ EMISIOAK WLTP 156TIK 220 GRAMORA/KM (136TIK 204 GRAMORA/KM NEDC), INDARREAN DAGOEN ARAUDIARI LOTUTAKO NEURRIAK. CO₂ emisioen balioak aldatu egin daitezke, aukeratutako ekipamenduaren arabera. Ibilgailua erosterakoan, hari lotutako fiskalitate kalkulurako diren NEDC balioak hartuko dira kontuan. Ford Kuga gama aukerarik gabe: WLTP kontsumoa, ziklomistoa 6tik 9,7 litroa/100 km. CO₂ emisioak WLTP 156tik 220 gramora/km (136tik 204 gramora/km NEDC), indarrean dagoen araudiari lotutako neurriak. CO₂ emisioen balioak aldatu egin daitezke, aukeratutako ekipamenduaren arabera. Ibilgailua erosterakoan, hari lotutako fiskalitate kalkulurako diren NEDC balioak hartuko dira kontuan. KugaTrend 1.5 EcoBoost 4x2 88,3 KW (120CV) KD irratiarekin, Ford Sync duena 10,67zm (4,2") TFT pantaila duena, esku-klimatizagailua, egunez gidatzeko argiak, larruzko bolantea, gurutzaldi kontrola abiadura kontrolarekin, giltzarik gabeko abiagailua. Eskaintzaren barne: BEZa, garraioa, IEDMT (Zenbait Garraio bideren Gaietako Zerga Berezia, Autonomia Erkidegoen arabera dena eta kasuan kasu berri kusteak komeni dena), promozio deskontuak, kontzesioak eta deskontuak FCE Bank plc S.E.-rekin finantzatzeko Ford MultiOpción-ekin bidez, zenbateko minimoa 12.000€ delarik, eta gutxienezko egonaldia 25 hilekoa. Kreditu-balorazioari lotutako operazioa. Eskaintza aplikagarria hilean eskatutako ibilgailuen kasuan. Argazkiko modeloek ez du zertan bat etorri eskaintzako ibilgailuarekin. Penintsulan eta Balearretan hile amalerara arte balio du. Ez da bateragarri beste deskontu batzuekin. MultiOpción-ekin finantzatzera, FCE Bank-ek azken kuotaren ordainketarako entregatutako. ford.es

SUV GAMA PEUGEOT

SUVak EZ DIRA INOIZ ERE HAIN URRUTI IRITSI



SUV PEUGEOT 2008



SUV PEUGEOT 3008



SUV PEUGEOT 5008

IBILGAILUAK STOCK- EANBALDINTZABEREZIEKIN

Informa zaitez!

GRIP KONTROLA
PEUGEOT i-Cockpit®
MODULARITATEA

MOTION & e-MOTION

BERGARA
Olabarrena auzoa, z/g
20570 Bergara
Tel.: 943 10 17 17

EIBAR
Otaola Etorb., 22
20600 Eibar
Tel.: 943 20 09 66

ZIORLA AUTOAK
Santa Maña, 19
48215 Iurreta-Durango
Tel.: 946 21 71 30



PEUGEOT

ETORMOBIL

SUV GAMA: WLTP balioak: Erregaikontsumo (l/100 km) minimoa eta maximoa 4,8tik 8ra ziklokonbinatuan – CO₂ emisioak (g/km) WLTP: minimoa eta maximoa 127tik 186ra ziklokonbinatuan. NEDC balioak: CO₂ emisioak (g/km) 93tik 131ra. Informazio gehiago peugeot.es/webgune WLTP atalean (www.peugeot.es/marca-y-tecnologia/ciclo-wltp).



Gremioen gida

anboto



Elektrizitatea

MARKIEGI

**ARGIZTATZEN
JARRAITZEN DUGU!**

Tabira, 3 - 48200 Durango
Tel.: 946 203 520 - 656 793 932
E-mail: markiegi@markiegi.com
www.markiegi.com



Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 Iturgintza

**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 Iturgintza


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 Zurgintza

ATERPE AROZTEGIA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



*Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!*





Ezpatadantzari Eguna

DANTZA
BERRIZ : Ekainak 15

Dantzari Dantza eta Erregelak

Zapatu honetan, ekainaren 15an, Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna ospatuko dute Berrizen. Ezpatadantzariek Olakueta plazan egin dute el-

kartzeko hitzordua, 17:30ean, eta, behin denak batuta, dantza taldeen argazkiak egingo dituzte. Hori amaituta, kalejiran abiatuko dira, 18:30ean.



Kultur aniztasunaren jaia egingo dute Iurretan

JAIALDIA | Kultur aniztasunaren alde, aste berezia antolatu dute Iurretan, hirugarrenez aurtan. Horren barruan, herriko hainbat elkarte eta kolektibok jaialdia antolatu dute, elkarlanean, zapa-turako. Egun osoko jaia hartuko du Askondok, 11:00etan hasita.

Sukalde lanekin hasteko hitzordua dute hori; izan ere, 14:30ean, hainbat herrialdetako arroza dastatzeko aukera emango duen bazkaria egongo da. Batutako dirua La Otra Miradak Sare Birau herrian (Senegal) ama-etxea egiteko erabiliko da.

Axoura elkartearen (Maroko) eskutik, tea dastatzeko aukera egongo da, 11:30ean. 12:00etan, umeentzako tailerrak hasiko dira. Denerik egongo da: herri kirolak, henna eta trentza tailerrak, eta arabiar idazkera ikasteko aukera ere eskainiko dute.

Bazkalordua heldu arte, Ghana txarangak eta dantzariek berotuko dute giroa. Jai giroak arratsaldean jarraituko du.

Ekainaren 14an

BERRIZ **jaiak**

Igel txapelketa
20:00etan, Legañon.
Parrilada, 21:00etan.
Kontzertua: Dube + La Ultima Bala + The North, 21:00etan.

DURANGO **euskal jaiak**

Kalejira txalaparta, alboka, trikitixa eta pandero eskolekin eta Sugarri fanfarreagaz, 19:00etan.

DURANGO **hitzaldia**

‘Kulturarteko kompetentziak’ (Hizlaria: Maya Amrane-Biltzen), 18:30ean, Elkartegian.

DURANGO **musika**

Durangoko Bertzilla Gazte Orkestra + Getxoko Andres Isasi Korda Orkestra, 19:30ean, Bartolome Ertzillako aretoan.

ELORRIO **erakusketa**

Eskulanak elkartekoan lanak, Iturri kultur etxean.

IURRETA **antzerkia**

‘Aukerak’ (Funes Troup), 18:30ean, eta, **‘Echos’ (Colectivo Eflirkoa)** 19:30ean, Askondon.
‘Al otro lado’ (Zuanguango Teatro), 20:00etan, Dantzari plazan.

MALLABIA **antzerkia**

‘Erradikalak gara’, Kontzejuzarrean 19:00etan.

Ekainaren 15ean

ABADIÑO **antzerkia**

‘Morir o no’ (Banarte), 19:30ean, Errota kultur etxean.

BERRIZ **Legañoko jaiak**

Kalejira: Erromeria.com, 12:00etan, Legañon.
IX. J.R. Korpion Memoriala bakailao txapelketa, 14:00etan.
Umeen jolasak eta tailerrak, 17:00etan.
Umeentzat txokolate jana, 18:00etan.
Herri afaria, 21:30ean.
Puro Relajo, 22:30ean.



GEREDIAGA EL-

Eskualdeko ezpatadan-
tzariek Legaño auzoan ja-
rraituko dute Ezpatadantzari
Eguna. Dantzari Dantza eta
Erregelak eskainiko dituz-
te 19:00etan hasiko duten
ikuskitunean. Eguna amai-
tzeko, herri afaria izango da,
21:30ean.

'Geometriak eta Fikzioak' erakusketaz gozatzeko gonbita

ERAKUSKETA I Ainize Txopiteak, Daniel Txopitearen 'Geometriak eta Fikzioak' erakusketaren komisarioak, helduentzako eta umeentzako tailer bana eskainiko du ekainean zehar. Helduentzako sormen ikastaroa ekainaren 20an izango da, eta umeentzako, 27an. Bestek

beste, collage eta marrazketa baliabideak erabiliko ditu horretarako. Doako tailerrak dira eta 19:00etan hasiko dira. Hala ere, izena eman behar da aurretik. Horretarako, 94 603 00 20 telefonoa edo museo@durango.eus e-maila erabili daitezke.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

DURANGO euskal jaiak XVIII. Zesta Punta Txapelketako finalak, Ezkurdi Jai-Alai frontoian, 18:00etan.
Dj-ak: Danny Meip, Gorka Perez + Gato, 22:00etan, Andra Mariko elizpean.

ELORRIO berbaldia Argazkigintzari buruzko berbaldia Iñaki Izquierdogaz, 16:30ean, Iturri kultur etxean. Lekua mugatua da eta izena ematea beharrezkoa da

ELORRIO kalejira Musika eskolako ikasleekin kalejira, 19:30ean, plazatik zehar.

IURRETA antzerkia 'Femmes' (Hortzmuga), 19:00etan, Dantzari plazan.
'Kale gorrian' (Barsati Teatro), 20:00etan.

MALLABIA kirola Frontenis maratonia bikoteka, 09:00etatik 20:00etara, frontoian.

MALLABIA Gereako jaiak Umeentzat txokolatea, 16:00etan, Gere auzoan.
Briska txapelketa, 17:00etan.

Ekainaren 16an

ABADIÑO San Antonio jaiak Meza nagusia, 11:30ean, Leioako abesbatzagaz, Urkiolako Santutegian.
Herri kirolak, 12:30ean, Urkiolan. Aizkoran: Bihurri eta Julen Mendieta Donato Larretxea eta Mikel Larrañagaren kontra. Iparraldeko jokoetan. Karlos Aretxabaleta.
Sokadantza, 13:00ean, santutegiaren inguruan.
Bizkaiko Gaiteroak eta Aikotarrekin kantu, dantza eta parranda.
Bazkaria, 14:30ean.
Erromeria Bizkaiko Gaiteroak eta Aikotarrekin, 16:30ean.

BERRIZ Legaño jaiak

Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen saioa, 12:00etan, Legaño.
Tailerrak: henna, trentza, zirkua..., 12:30ean.
Munduko janari dastaketa, 13:30ean.
Kawadeni, 17:00etan.

IURRETA antzerkia 'Amarru' (Tor Magoa), 13:30ean, Dantzari plazan.

MALLABIA Gereako jaiak

Meza, 11:00etan, eta gero, Gazte Alai dantza taldea.
Bertsoak eta Herri kirolak. Ondoren, **umeen jolasak**.
Asto-probak, 18:00etan.

Ekainaren 17an

ELORRIO hitzaldia 'Aldaketa klimatikoa. Oinarri zientifikoak' (Hizlaria: Jon Saenz EHUKO irakasle eta ikertzailea), 19:00etan, Iturri kultur etxean. Elorrixa ekologi taldeak antolatuta.

Ekainaren 18an

IURRETA Plazaratu astea Gerlari akademiaren erakustaldia, 20:00etan, Aita San Migel plazan.

ELORRIO musika Biolin saioa, 19:00etan, Musika Eskolako aretoan.

Ekainaren 19an

IURRETA Plazaratu astea Umeentzako jolasak, 17:00etan, plazan.

Ekaineko agenda



15

"KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA"
11:00 Topaketa
11:30 Tea
12:00 Umeentzako tailerrak (Herri kirolak, henna, trentzak, arabiar idazkera...)
12:30 GHANAKO txaranga eta dantzariak
14:30 Bazkaria eta Bisap dastaketa. Tikitak salgai ekainaren 7tik 11ra: Ibarretxe Kultur Etxea, HAZ/SAC, Jubilatuen etxea, "Gauargi" taberna
16:00 Kafea
16:30 Musika - dantza: XIII. Iurreta KALEZ-KALE
19:00 Hortzmuga "FEMMES" Dantzari
20:00 Basati Teatro "KALE GORRIAN" Dantzari

16

"XIII. IURRETA KALEZ-KALE"
11:30 Tor Magoa "AMARRU" Dantzari plazan

18

"UDAKO TAILERRAK"
18:30 UDAKO TAILERREN programaren aurkezpena

21

"NAZIOARTEKO MUSIKA EGUNA"
10:30 Umeen danborrada. Jarraian, kalejira "El Despiste" taldeagaz
19:30 Musika herrigunean "BLUES THE LUXE"

23

"SAN JUAN BEZPERA"
20:00 Afari herrikoia
21:00 Erromeria Luhartz taldeagaz
22:30 San Juan Sua piztuko da. Ondoren, erromeriak jarraituko du.



'Iraultzaren haziak'
ikus-entzunekoa,
ekainaren 19an, 19:00etan,

Zinea

:: Durango - ZUGAZA

• **Men in Black International**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 17:00/19:30/22:30
domeka **16:** 17:30/20:00
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00

• **Mejor que nunca**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 18:30/20:30/22:30
domeka **16:** 18:30/20:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00

• **El sótano de ma**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 19:30/22:30
domeka **16:** 20:00
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztena **19:** 20:00
• **Mr Link**
zapatua **15:** 16:30 (euskaraz)
domeka **16:** 16:30 (euskaraz)
• **Aladdin**
zapatua **15:** 16:30
domeka **16:** 17:00

:: Zornotza - ARETOA

• **Rocketman**
zapatua **15:** 22:15
domeka **16:** 20:00
astelehena **17:** 20:15
• **La pequeña traviesa: Los animales ya no son un problema**
domeka **16:** 17:00

Ekainaren 20an

DURANGO musika Egunero: Rafa Rueda, 20:00etan, Intxaurren.

IURRETA Plazaratu astea Berbaldia eta argazki erakusketa Abadetxeari buruz, 19:00etan, plazan.

Ekainaren 21ean

IURRETA Plazaratu astea Arratsalde-pasa: jolasak, musika... plazan.

IURRETA musika Umeen danborrada, 10:30ean. **El Despiste taldeagaz kalejira**.
Blues Deluxe, 19:30ean, herrigunean.

ZORNOTZA musika Haizetara, XIV. Fanfarren, Banden eta Kale Musikaren Nazioarteko Lehiaketa, ekainaren 23ra bitartean. Befunkbop, Eyo'Nle Brass Band, Biflats, Jingle Django, Sopa Loca, Flat Cap Brass, 3Indarrok Elektrotxaranga, Los Muchachos Brass, Orquesta de Ermesinde.



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

Antzerkia, musika, dantza eta zirkua, Durangoko kaleak kulturaz bete eta uztaila girotzeko

Ekainaren 21etik uztailaren 20ra arte, hamar kultur ekitaldi eskainiko dituzte Durangoko kaleetan, bertakoen gozamenerako



Moveok 'Consequences' obra eskainiko du.

UDA GIRO • ARITZ MALDONADO

Iaz lehenengoz egin zuten lez, San Agustin eta Plateruena kulturguneek indarrak batu dituzte Uda Giro antolatzeko. Uda Klean Bizi eta Jazzeruena jaialdien fusiotik jaio

zen, iaz, Uda Giro. Hamar kultur ekitaldik osatzen dute egitaraua, eta iazko arrakasta errepikatzea bilatzen dute antolatzaileek. "Euskal Herrian ekoizten ari diren produkzioen erakusleho bilakatuko

ditugu Durangoko kaleak", azaldu du Arantza Arrazola San Agustingo koordinatzaileak.

Musika, dantza, antzerki eta zirkua emanaldiek osatzen dute egitaraua, eta Durangaldeko hain-

bat artistek parte hartuko dute jaialdian. Bogoroditse abesbatzak emango dio hasiera jaialdiari, ekainaren 21eko kantaldiagaz. Bestalde, Amaia Urzainkik Overnight kantaldia eskainiko du, Robert

Oviedogaz batera. Durangaldeko Javier Garcia 'Mimo'-k, Haritza Rodriguezek eta Juanjo Oterok osatzen duten Barsanti konpainiak *Kale Gorrian* antzezlan eskainiko du, ekainaren 28an. Bestalde, Moveo dantza talde katalanak eta Amaia Elizaranek dantza ikuskizuna eskainiko dute. Malas Compañías antzerki talde entzutetsuak *Prozak* obra aurkeztuko du.

Jazz doinu instrumentalak

Jazza oinarri hartuta, Javier Lopez Jaso, Marcole Escrich 4tet, Adi! Fredi Pelaez Organ Trio eta Jon Urrutia Trio taldeek bestelako doinuak uztartuko dituzte Plateruena kanpoaldean. "Jazzaren zenbait

Musika, dantza, antzerki eta zirkua emanaldiek osatzen dute egitaraua

interpretazio eskainiko dituzte musikariek. Kontzertuetara etorri, eta norberak entzutea da onena", egin du gonbidapena Iñintza Orbegozo Platerueneko koordinatzaileak.

Euria eginez gero, toki alternati- boetan egingo dira ekitaldiak. Egitarau osoa ANBOToren webguneko agendan dago ikusgai.

AMOREBIETA • ETXANO

haizetara 2019

XIV. FANFARREN, BANDEN ETA KALE MUSIKAREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA 21, 22, 23 EKAINA

BEFUNKBOP
(Granada)

EYO'NLE BRASS BAND
(Benin)

BIFLATS
(Katalunia)

JINGLE DJANGO
(Nazioartekoa)

SOPA LOCA
(Frantzia)

FLAT CAP BRASS
(Erresuma Batua)

3INDARROK
ELEKTROTXARANGA
(Euskadi)

LOS MUCHACHOS BRASS
(Madril)

ORQUESTRA DE ERMESINDE
(Nazioartekoa)

Lehiatik kanpo
BLOCO REBELASON
LAMBROTEN BRASS BAND
BROKEN BROTHERS BRASS BAND

laguntzaileak:
INTERKLABE
TXAPO
Zerbitzu Zerbitzuak

antolatzaileak:
Bizkaia
amex
amorebieta etxano

Iurretako herrigunea antzeztoki bilakatuko da asteburuan, Kalez Kale jaialdiagaz

Ekainaren 16ra bitartean, zazpi emanaldi eskainiko dituzte Iurretako kaleetan; Kalez Kale jaialdiaren 13. edizioa da



Barsantiren 'Kale Gorrian' obra.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO
Eguenean hasi zen Iurretako Kalez Kalez kale antzerki jaialdia. Asteburu osoan zehar, beste sei emanaldi egongo dira gozagai herrigunean. Garbitxu Deabru Beltzak taldeko

zuzendariak herriak jaialdia antolatzeke egiten duen ahalegina nabarmendu du: "Euskal Herriko ekoizpenak kaleratzeko jaialdi bakarrenetarikoa da, eta horrelako herri xume batentzat esfortzu

handia da hori". Hamahiru urtean zehar, kale antzerki jaialdia egonkortu egin da Iurretan. Horren erakusle dira Pili Jimenez kultur teknikariak azaldutako datuak: "Urteotan, 82 antzerki konpainia

etorri dira Iurretara, eta 450 aktorek antzeztu dute gure kaleetan".

Karrika plataforma
Jaialdiaren hasieratik, antolatzaileak Euskal Herri osoko obrak era-

kusten ahalegindu dira. Gainera, Iurreta Karrika plataformako kidea da. Horrela, aurreko lehenengoz, Ipar Euskal Herriko konpainia batek emanaldia eskainiko du; iaz eskaintzekoa zen, baina euria-gatik bertan behera geratu zen. Eflirkoa Collectifek *Echos* obra antzeztuko du gaur, ekainak 14. eta Funes Troup bizkaitarrek *Aukerak* aurkeztuko dute. Egun berean, Zanguango konpainiak oihalaren beste aldean zer gertatzen den erakutsiko du *Al otro lado* antzezla-

Barsantik etxean aurkeztuko du 'Kale Gorrian', izan ere, Durangaldekoak dira

nean. Ekainaren 15ean Hortzmuga eta Barsanti konpainien txanda izango da. *Femmes* eta *Kale Gorrian* lanak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren. Azkenekoen kasuan, emanaldi berezia izango da, izan ere, Barsantiko kideak Durangaldekoak dira. Tor Magoak itxiko du egitaraua, ekainaren 16an, *Amarru* ikuskizunagaz.

Euria eginez gero, Askondoko karpan egingo dira antzezlanak. Egitarau osoa ANBOToko Agendan dago ikusgai.

Durango Orfeoia kontzertu solidario bi eskainiko ditu udan

Durango eta Deban joko dituzte kontzertuak, Sierra Leona Errepublikako SSLDF GKEarentzat dirua biltzeko; Durangokoa ekainaren 29an izango da, 21:00etan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO
Durango Orfeoia eta Debako Aitzuri abesbatzak elkartasunezko kontzertu bi eskainiko dituzte ekainean eta uztailean, Sierra Leonako Errepublikako SSLDF gobernuz kanpoko erakundearentzat dirua biltzeko. Elkarlana Virginia Canales durangarraren ekimenetik dator.

Aparejadore lanetan ibili zen han, eta Euskal Herrira bueltan hartu-emanagaz jarraitzea erabaki zuen. Han zegoela, Canalesek 240 ikaslerentzako eskola eraikitzen lagundu zuen. Kontzertu hauetan bildutako dirua ebolak umezurtz utzi dituen umeei laguntzeko baliatuko dute. Etorbizunean, Durango bertan horrelako elkarte

bat sortzeko asmoa du Canales durangarrak.

Sarrerak hamar euroan
Durango kontzertua ekainaren 29an izango da, 21:00etan, Andra Mariko basilikan. Sarrerak Folderrren, Axpe tabernan eta Double Act dendan daude salgai, hamar euroan.



Elkartasunezko kontzertuen aurkezpena.

Antzerki tailerrean ikasitakoa taularatuko du Banartek

'Morir o no' obra eskainiko dute, Abadiñon eta Berrizen

ANTZERKIA • A.M.
Banarte Antzerki taldeak antzerki tailerra eskaintzen duen hamai-kagarren denboraldia izan da aurtengoa. Nerea Ariznabarreta izan da tailerreko irakaslea, eta, orain, antzerki taldeko kideek hitzordu bi dituzte beragaz ikasitakoa oholtza gainean erakusteko. Lehenengoa zapatu honetan izango da, ekainak 15, 19:30ean; Errota kultur etxean izango da

emanaldia. Bigarren antzezpena Berrizko Kultur Etxean egingo dute, ekainaren 21ean, 20:30ean.

Hamaika lagunek parte hartu dute ikastaroan, eta antzezpenagaz izan duten lehenengo hartu-emanan izan da gehienentzat. Ventura Ponsek pelikularako moldatu zuen *Morir o no* obra antzeztuko dute. Iaz, *Claro y Clara no se aclaran* obra antzeztu zuten ikastaroko kideek.



Iaz, 'Claro y Clara no se aclaran' obra antzeztu zuten.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Stronger Together talde berriztarrek 'Integridad' kaleratu du ekai-nean. Energiatz beteriko diskoa taula gainean defendatuko dute Eneko Basetak, Unai Basetak, Gaizka De la Torrek eta Arkaitz Bereziartuak.

Pozik zaudete egindako lanagaz?

Eneko Basetak: Gure lehenengo lanean, maketa grabatu osteko abestiak sartu gura genituen. Make-tagaz ez bezala, denbora gehiago eskaini ahal genion zerbait egiteko gogoa genuen.

Unai Basetak: Nahikoa disko heterogeneoa geratu zaigu, hardcore doinuen barruan, noski. Ñabardura ugari dituzte abestiek, eta horrek dibertigarri egiten ditu. Entzuteko erraza dela iruditzen zaigu.

Grabatzeko modua aldatu duzue.

E.B.: Probatu egin gura genuen, eta oso gustura gaude emaitzagaz. Oraingo honetan, instrumentu

“**"Dena familian egitearen sentsazioa dugu, eta horixe da onena"**

bakoitzari bere garrantzia eman gura genion.

E.B.: Gehiago landu dugu oraingoan. Gure sinpletasunean, landuago dago dena, eta, konposatzerakoan, exigentzia maila igo dugu. **Talde moduan, egonkortu egin zarete azkenaldian.**

Gaizka De la Torre: Urte eta erdi igaro da taldeagaz lehenengoz jo nuenetik, eta orain konposaketan ere parte hartu dut. Doinu desberdinak nahasten ditugu, baina, esentzian, nabari da gureak direla.

U.B.: Findu egin dugu gure estiloa. Abesti batzuk hardcore pisutsua dira, beste batzuek ukitu punkia dute, laburrak eta zuzenak...

E.B.: Madball, Sick Of It All, NY hardcorearen eragina hor dago, eta igartzen da.

'Integridad' zabaltzeko, autogestioa aukeratu duzue.

E.B.: Aurremaketa geuk egin ge-

“Ñabardura ugari dituzte abestiek, eta horrek dibertigarri egiten ditu”

Hamaika matrailekok osatzen dute Stronger Together berriztarren lehenengo diskoa



nuen, Zanaren [Tres41] eta Hodeiren [Ikarass] laguntzagaz. Diseinuan denok parte hartu dugu, kantak egiterakoan, berbetan...

U.B.: Hardcorean ohikoa den *Do It Yourself* filosofiagaz bat egiten dugu.

Lagunek ere abestu dute, ezta?

E.B.: Ikarass-eko Imanolek, Worth It-eko Aritz Tarranek eta Ion Chavezek abestu dute. Denek bikain egin dute euren lana, eta freskotasuna ematen diote diskoari. Baina, hori baino gehiago, familian egitearen sentsazioa dugu, eta horixe da onena.

U.B.: Abesti bat, osorik, Beat Salad kolektiboagaz egin dugun kolaborazio bat da. Aspalditik genuen buruan, hip hop zaleak garelako.

Aukera irten zen, eta oso gustura geratu gara emaitzagaz.

Zeri buruz abestu duzue oraingoan?

U.B.: Oraingoan, abestietako berbek ukitu sozialagoa dutela esango nuke. Errefuxiatuen egoeraz eta sexismoaz abestu dugu, esate baterako.

“**"Toparen moduko espazioak egotea aberasgarria da musika zabaltzeko"**

Orain, baduzue zuzenean aurkezteko asmorik?

E.B.: Ekainean kontzertu bi joko ditugu, eta, gero, geldialditxo bat egingo dugu, irailera arte.

U.B.: Kanpora irtetea gustatuko litzaiguke.

Topan egingo duzue diskoaren aurkezpena.

E.B.: Horrelako espazioak egotea oso aberasgarria da. Beste publiko batengana zabaltzen du musika. Gainera, arratsaldean egitea interesgarria dela uste dugu.

U.B.: Ikusleentzat ere interesgarria da. Gauza gehiago daude musika komertzialaz haratago, eta horiek erakutsi egin behar dira.

Geure Durangaldea

Ainhoa Urien Tellechea
Ikaslea



Zain

Bizitza osoa zain. Autobusaren zain, kafea hozteko zain, oporren zain, planaren zain, eguna iristeko edo pasatzeko zain, bizitzeko zain, zoriontasunaren zain, hiltzeko zain. Bakoitza berearen esperoan.

XV. mendetik hona ez gara horrenbeste ere aldatu, antza denez, ordurako esana baitzuen Blaise Pascalek “ez gara sekula bizi, bizitzeko zain baikaude beti”. Eta horixe da, ba, gure nahi eta ezina ere; bizitza osoa zain, jubilatzeke zain, jaiotzeko zain, lentejak egosteko zain, ordua noiz helduko zain.

Ordubetez lagun bati itxaroten egotea tokatu zait, baina ez naiz asalatu, ez dut er-negatu; gustatzen zait zain egotea, betiere esperoan noiz arte egon behar dudana baldin badakit. Konturatu naiz zain egon behar dugun gehienetan bitarteko materialei heldzen diegula, nagusiki telefonoari, suete apur batekin liburuari. Kontua da entretenimendua bilatzen dugula etengabe, norbere buruari eusteko mediazio material baten bila, norbere buruarekin egonean egoteari muzin eginez. Aitita-amamak soilik ikusten ditut bankuetan ezerezari begira, denbora-pasa, noizbehinka erlojuari erreparatuz, lasai plantan behintzat.

Bizitza osoa zain, eta beraz, bizitza osoa entretenimendu bila. Hala bada, saiatu gaitzen, sikiera, entretenimenduek zoriontsu egin gaitzaten, on egingo diguten mediazioak bilatzen, zain gauden dena delako hori iritsi arte.

Bizitza osoa zain egotea bada kontua, bizi dezagun bizi-bizi itxaronaldia.

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

uxarte
SAGARDA OGINTZA

Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN

ASTEAN ZEHAZ
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

CERAMICAS
MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727



Carlos Torres Perez
Zornotza | 1988

Juanma Segado Brocos
Zornotza | 1992

Pablo Gil Aguirre
Malaga | 1982
Skate eta rolling-lariak.

Torres, Segado eta Gil Zornotzako skate parkean.

“Bizkai osoan, Durangaldea da skatea abandonatuen duen eskualdea”

Tokioko Joko Olinpikoak skateari bultzada berri bat emateko abiapuntu moduan ikusten dituzte hiru patinatzaile zornotzarrek

SKATEA • JOSEBA DERTEANO

Elkargune bihurtu daitekeen skate parke egokirik barik, zaila da komunitatea indartzea, baina, aldi berean, komunitatea batu barik, gatxa da presio indar eraginkor bat osatzea. Korapilo hori askatzeko, 2020ko Joko Olinpikoak izan daitezke inflexio-puntua, zeinetan skatea diziplina olinpiko bihurtuko den lehenengoz. Horixe uste dute Pablo Gil, Juanma Segado eta Carlos Torres skatelari zornotzarrek.

Zuek ez zarete berriak kirol honetan.
Juanma Segado: Skatea nire bizitzako istorioa da. Umetan hasi eta 13 bat urtegar eguneroko kontu bihurtu zen.

Pablo Gil: Ni Malagako Ronda herrikoa naiz. Han ez zegoen pistarik. Kanean ibiltzen ginen, patinetan. Marbellan skate parke bat egin zuten, eta hara joaten hasi ginen. Behin skatean nenbilela, jausi eta meniskoan min hartu nuen. Zornotzara etorri eta berriro hasi nintzen, urte batzuetan geldu egon eta gero.

Carlos Torres: Ni umetatik nabil. Eta bat nator Juanmagaz. Gure bizitzako istorioa da, bai

Skatea kirol bat baino gehiago da?

C.T.: Guretzat, bai. Bizitzeko modu bat da.

J.S.: Artea eta sormena sustatzen dituen kirola da.

C.T.: Garapen pertsonalerako bide bat da, nire ustez. Eta bere adierazpide propioa du.

Zornotzan parke bat dago, baina kanpora joaten zarete.

C.T.: Pablo hona bizitzera etorri zenean, kotxea zuenez, kanpoko herrietako parkeetara joaten hasi ginen beragaz.

J.S.: Pertsonalki, une horretan, beste herri batzuetako azpiegiturak ezagutu nituenean, mundu berri bat zabaldu zitzaidan. Ez nuen imajinatu ere egiten horrelako parkeak existitzen zirenik.

C.T.: Ezta patinekin eta skateekin mugimendu harrigarri horiek egin zitezkeenik ere.

P.G.: Ondo pentsatuta egindako skate pistak dira eta kirola sakonean ezagutzen duten pertsonen diseinatutakoak.

Zornotzakoa ez dago horrela diseinatuta?

C.T.: Min egiteko arrisku handiagoa dago. Gure ustez, ez dago ondo diseinatuta. Esaterako, arrapalak mugimendu naturalari jarraitu beharrean, pistaren erdira jaurtitzen zaitu.

P.G.: Gaur egun, oso prezio lehiakorretan egin daitezke pista berriak, baita estalitakoak ere.

Udalagaz hartu-emanen izan zarete?

P.G.: Iaz, kirol arloko zinegotziagaz batzartu nintzen eta jarrera ona erakutsi zidan, baina, hortik aurrera, ez dakit gehiago.

Zornotzan jende askok praktikatzen du skatea edo rolling-a?

P.G.: Hainbat gara. Zaku horretan scooter-a ere sartuko nuke. Gaztetxo asko dabilta. Erabilterraza denez, modan dago. Haienezat azpiegitura egoki bat jarritz gero, asko ibiliko liratekeela uste dut.

J.S.: Azkenean, skate parkeak elkar ezagutzeko eta komunitatea indartzeko toki bat dira.

“**Sarritan gertatu zaigu kanpoko herrietako skate parkeetara joan eta Zornotzakoa den jendea aurkitzea**”

P.G.: Sarritan gertatu zaigu kanpoko herrietara joan eta Zornotzakoa den jendea aurkitzea.

J.S.: Guk hirurok Zornotzako skate parkean elkar ezagutu genuen, eta, harrezkero, lagun-minak gara. Lehen, denok elkar ezagutzen genuen, Zornotzako parkean ibiltzen

ginelako. Baina zaharkituta geratu da, denak kanpora joaten dira, baita gurasoak euren seme-alabekin ere. Zornotza dagoeneko ez da elkartzeko gune bat. Izaera hori galdu du.

C.T.: Zornotzako parkea orain dela 20 urte egin zuten. 90eko hamarkada amaieran praktikatzen zen skate estiloa oso desberdina zen gaur egungoagaz alderatuta. Harrezkero, kirolak eboluzionatu egin du, eta Zornotzako parkeak, oster, ez. Gaur egun, hiri-altzarietako parkeek baino joko handiagoa ematen digute.

Zergatik ez zarete elkarte batean batzen?

P.G.: Sortu genuen elkarte bat, 2008an, eta urte eta erdi iraun zuen. Zornotza Urban Crew deitzen zen. Komunitatearen elkargune izateko eta pista berria aldarrikatzeko sortu genuen. Orain berriro sortu gura genuke, baina...

J.S.: Esperientzia txar horren mamua dugu oraindik. Ahalegin handia egin genuen, baina azkenean ez zuen itxaroten genuen fruiturik eman. Hasieran, *feedback* handia sentitu genuen, ondo irtengo zuela zirudien, baina, apurka-apurka, beherantz egin zuen. Dezepzio haren ondoren, nor bere bidetik joan zen.

Zelakoa da skatearen indarra Durangaldean?

P.G.: Durangon badago skate gune bat, eta Zornotzakoaren anaia bikia da. Garai berekoak dira eta zaharkituta geratu dira.

C.T.: Jendeak gurago du Ezkurdin edo hiri-altzarietan ibili. Eserleku bati etekin gehiago ateratzen diote skate parkeari baino.

J.S.: Bizkai osoan, skatea abandonatuen duen eskualdea Durangaldea dela uste dut.

Bizkaian, zein da skate-gune erreferentea?

J.S.: Skaetaren inguruan, Leioan egin dute inbertsiorik handiena Bizkaian.

Scooter-a gaztetxoaren artean modan dagoela aipatu duzue. Etorkizunean, skatea ordezkatu dezake? Arrisku hori ikusten duzue?

J.S.: Skateak oso nukleo indartsua du, batez ere Estatu Batuetan, eta handik mundu osora hedatzen da.

Skatea diziplina olinpikoa izango da 2020an, eta kirol honen berpizkundea izan daiteke”

Aldi berean, honako hau ere ikusten dut: nire umezaroan jostailu moduan skatea saltzen zen gehien, eta gaur egun scooter-ak gehiago saltzen dira.

C.T.: Nik rolling-a ikusten dut behe-ranzko joeragaz. Patin-banatzaile enpresak ixten ari dira. Horrek arduratu egiten nau. Ze, eskaririk ez badago...

P.G.: Skateak marka indartsuak ditu atzetik. Arropa marka jakin batzuk kalean ikusteak mugimendua indartzen du.

J.S.: Laster, skatearen etorkizuneko erabakigarria izango den data bat dator. 2020tik aurrera, diziplina olinpikoa izango da, lehenengoz.

P.G.: Skatearen berpizkunde bat izango dela uste dugu.

Badago patinatzeari uzteko adinik?

J.S.: Skateko aitzindarietako batek, Jay Adams amerikarrak, hauxe esan zuen behin: “Patinatzeari ez diozu uzten zahartzen zarenean; zahar egiten zara patinatzeari uzten diotunean”.

Gorka Agirre parakaidismo errekorra ondu gura duten euskaldunen artean dago

Euskal herritarrek osatutako taldekako saltorik handiena egin gura dute irailean



Agirre —eskumatik hasita bigarrena—, eta gainerako paraxutistak entrenamendu saioan.

PARAKAIDISMOA • J.D.

2009an, 12 euskaldunek Euskadiko taldekako parakaidismo errekorra ezarri zuten. Gorka Agirre (Durango, 1979) talde hartan zegoen. Harrezkero, 10 urte joan dira eta paraxutista euskaldunek errekor berria ezarri gura dute. Irailean izango den saiakera horretara ere ez du hutsik egingo Agirrek.

EPA kluba da marka berri hau lortzeko asmoa martxan jarri duena. "2009an paraxutista euskaldun gutxi zeuden, 15 bat. Gaur egun kopuru hori handitu egin da eta 50 bat daude", dio Agirrek, EPA klubeko kideak. Beraz, 13 lagunetik 16ra arteko formazioa osatu eta errekorra hobetu dezaketela uste du. Orain arte entrenamendu saio bi egin dituzte. Azkena, joan zen asteburuan.

Peter-en oroimenezko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte domekan

PILOTA • J.D.

Peter-en oroimenezko pilota txapelketako finalak domekan izango dira, 17:00etan hasita. Kadete mailan, Ekain Etxebarria durangarrak Adrian Uriarte lezamarragaz osatuko du bikotea. Bestea Paul Perez durangarrak eta Jokin Barandika ortuellarrak osatuko dute. Etxebarriak Bizkaiko buruz buruko txapela eta binakakoa jantzi ditu aurten. Nagusien finalean, Arabiourrutia abadiñarrak eta San Sebastian ibarruriarrak Jon Arana abadiñarraren eta Edorta Bilbao lezamarraren kontra jokatu dute.

Egun berean, baina goizean, 11:00etan, neska-mutikoen Euskal Jaiaren barruko finalak jokatu dituzte.

Jokaldia

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



Gasteizko Mendiak

Mendian korrika egiten hasi nintzenean, distantzia luzeko probei beldurra nielako hasi nintzen 2014an kilometro bertikaletan lehiatzen: desnibel gogorrek bai, baina distantzia laburrak ziren eta nire burua lasaitzeko modu bat-edo izango zen akaso. Geroztik, 10 eta 15 kilometro arteko mendi lasterketa ugari egin ditut eta ikaragarri gustatzen zaizkit horrelako proba labur eta azkarrak. Baina beti nahi izan dut maratoi erdietan aritu. Beraz, pixkanaka, kilometro gehiago eginez, jada 20-30 km arteko mendi lasterketetan indartsu sentitzen hasi naiz.

Orain distantzia luzeei beldurrik ez, errespetua diet; eta ultrak egiten dituztenei miresmen itzela. Ultrak edo, bestela esanda, 42 km baino gehiagoko lasterketak ganoraz prestatzeko, denbora asko behar da eta entrenamenduak progresiboki gogortzen joatea. Hilero ordu eta kilometro gehiago pilatzen joanez prestatzen dira horrelako proba luzeak eta, gainera, elikadura eta beste bizi ohitura asko zainduz.

"Guztira, 1.100 lagun inguru irtengo dira bihar goizeko seietan, eta, tartean, lagun bat"

Bihar, Gasteizko Mendiak deritzon 62 kilometroko lasterketa dago. Helmugan sartzen diren lehen 100 lagunek Hiru Haundietarako dortsala irabaziko dute. Guztira, 1.100 lagun inguru irtengo dira bihar goizeko seietan, eta, tartean, lagun bat. Bere ingurukook badakigu mimo handiz prestatu duela lasterketa hau, oso ondo egin baitu prestaketa lan osoa eta lasterketaz gozatzea baino ez zaio geratzen. Animo, Eneritz!

Asteko kirolaria

"Juan Esteban Gorritiri eskaini gura diot garaipena, arku-tiroa maite zuen eta"

Astebeteko epean, Lidia Cañetek Euskadiko eta Espainiako txapelketak irabazi ditu

Euskadiko beteranoen txapelketa bereganatu eta astebetera, Lidia Cañete durangarrak Espainiakoa irabazi du. Madrilen jokatuak txapelketan, durangarra onena izan zen 60, 40 eta 30 metrokoan.

Astebetea titulu bi eskuratu dituzu. Itxarondako emaitzak izan dira? Egia esan, bai. Baina gezi asko jaurti behar dira, eta apurka-apurka joatea beharrezkoa izaten da. Ezin zara txapelduna zarela sinistuta joan.
Probako lau distantziatik hirutan izan zinen onena. Zelan ikusi zuen zeure burua txapelketan? Oso gustura sentitu nintzen txapelketa osoan. Haizea zebilen

boladaka, eta gura ez nuen tokira bidaltzen zizkidan geziak, baina, gainerakoan, zoragarri joan zen dena. Txapelketa oso polita izan zen, eta antolakuntzak bikain egin zuen bere lana.
Haizearen kontra ezin daiteke ezer egin, ezta? Ez. Horrelako kasuetan itxarotea edo une egokia bilatzea bakarrik gelditzen zaigu. Partaide bakoitzak 240 segundo ditu 6 gezi jaurtitzeko. Beraz, bere eskuan egoten da momentu aproposa zein den erabakitzea.
Zeintzuk dira zure hurrengo helburuak? Uztailean jokatu diren senior mailako Bizkaiko eta Euskadiko

txapelketak dira nire helburu nagusiak.
Txapelketa horietan, Elisabeth Luengo eskualdeko arku-tiralaria izango duzu aurkari. Elisabeth sasoi onean dago eta aurkari gogorra izango da. Nire aurreikuspenen arabera, eta ikusita beste txapelketa batzuetan lortzen gabiltzan puntuazioak, bion artean borroka izango dela ematen du. Hala ere, geziak jaurti egin behar dira, eta ikusi egin behar da ea zer gertatzen den. Proba guztietan bezala, dena ematera irtengo naiz.
Euskadiko Txapelketan, Mirene Etxebarria irundarra ere kon-tuan hartu behar du.



LIDIA CAÑETE JAI
Durango, Arku-tiralaria

Zelan ikusten duzu arku-tiroaren egoera eskualdean?

Kirol minoritarioa da eta gauzak oso gatz daude. Arku-tiroagaz ezin dira babak eltzetik atera, eta kirol hau hobby lez eduki behar da.

Zerbait gehitu gura duzu?

Juan Esteban Gorritiri eskaini gura diot garaipena, arku-tiroa maite zuen eta. Urte luzez ibili zen gure klubean geziak jaurtitzen. Aurten utzi egin gaitu, eta, dagoen lekuan dagoela, berarentzat da garaipena.

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

JEKYLL DOKTOREAREN ETA HYDE JAUNAREN KASU BITXIA
R.L. Stevenson (2019)

SATOR JATOR (DVD)
Ene Kantak (2018)

ROOTS (VINYL)
Sepultura (1996)

clínica dental hortz klinika

b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Elorrio. Atiko polita errentan Elorrión. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m2 etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Zaldibar. Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Elorrio. Elorriko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrión bertan). Tel.: 688 64 06 04

LURSAILA

Ortu baten bila. Abadiñon ortu baten bila nabil. Ortuak lantzea nire zaletasuna da. Pertsona gaztea naiz eta nekazaritza oso gustuko dut. Baten batek lursailtxo bat badauka Abadiño inguruan, nik landuko nioke ortua. Tel.: 666 69 10 03

PERTSONAK ZAINDU

Esperientziadun umezalna. Kaixo, Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale moduan. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644 41 11 74

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handikoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil

pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Zientziako klase partikularrak. DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK
ANBOTOK banatzailea behar du.
ANBOTO astekariak banatzailea

behar du barikuro Zaldibarren banaketa egiteko. Beharrezkoa euskaraz jakitea. Tel.: 94 681 65 58

ETXKO LANAK

Plantxa orduka egiten dut. Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langilean lan bila. Adineko pertsonak edota haurrak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa lisatzeko, sukaldaritza lanak egiteko prest nago (40 urte).

Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila. Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu: Tel.: 643 72 71 98 zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurilaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Ibilgailuak
AUTOAK

Land rover DEFENDER-a erosiko nuke. Land rover defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen, itv gabe, aberiatua, kolpeekin... jarri harremanetan Tel.: 658 03 08 36

ASTE HONETAN

JOSERRA SENPERENA



AITZOL ATUTXA



IÑIGO ASTIZ




Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.

DOAN

ttap
Irakurri, ukitu, ikusi, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus




Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

SARASKETA, DIEGO Luis
Uruguay, 1975. **5** **30NOV23A**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**



EGUENA 🌡️ 23° / 14°



“Tokiko herritarrekin eta bisitariekien elkargunea bat sortu gura dugu Amillenan”

Amillena benta zabaldu dute Arrazolan, taberna eta egunerokorako produktuak saltzeko denda txikia eskura jarritz. Jatetxea ere zabaldu gura dute datorren ekainaren 21ean

Vanessa Calvo Corrales (Atxondo, 1978)
Lur Moragues Saitua (Abornikano, 1983)
Jose Romero Hernandez (Andaluzia, 1967)
 • Amillena bentako arduradunak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Bidezko merkataritza eta merkataritza agroekologikoa oinarri hartuta, sasoian sasoiko produktuak eskainiko dituzte Amillenan, inguruko ekoizle txikiekin lanean. Elkarlanean eta kooperazioan jardun gura dute Calvok, Moraguesek eta Romerok, kultur transmisioari eta sorkuntzari ere lekua eskainita. Proiektuan sinistu duen jende askoren laguntasuna izan dutela azaldu dute. "Babes eta maitasun handia sentitu dugu", diote.

Transformazioa eta elikadura gorpuzteko herri laboratoriora da Amillena, eta elikadura burujabetza feminista duzue helburu. Nola da hau?

Jose: Herritarrik barik, gu martxan ipini barik, ezin da ezagutza eta kultura eraiki. Bada, intentzio horri egiten dio aipamena herri laboratoriorioak: ezagutza eta kultura

sortzeko era horiek guztiak batzen dituen kutxa izatea dugu helburu. **Vanessa:** Bestalde, elikadura burujabetza feminista gorpuzteko gunea izan dadin gura dugu. Elikadura burujabetza eta feminismoa sustatzeko proiektua ere bada. **Zer eskaini gura duzue?** **Vanessa:** Zerbitzua ematek aparte, bertako herritarrekin eta bisitariekien elkargune bat sortu gura dugu, nagusi, heldu, u m e

zein gazteekin. Herritarrek parte hartzeko proposamen berria da, bestela ez luke zentzurik.

Lur: Zerbait hartzeko toki baten premia zegoen auzoan. Zerbitzu hori eskainiko dugu, eta hori baino gehiago.

Amillena izena aukeratu duzue. Ingu-ruan ezaguna den fenomeno...

Vanessa: Anboton gertatzen den fenomeno naturala da Amillena. Aldaketa dakarren ipar haizea da, Anboto estaltzen duen laino berezi horrek iragarritakoa. Inguruko nagusiek asko erabiltzen duten berba hartu dugu hitz-jokoa egiteko, Amillena transmisio gune bat lez ikusten dugulako; inguru hau izan dena eta dena, erroa eta geroa batzen dituen gunea.

Mendizaleak eta bidegorrira doazenak ere izango dira bezero...

Vanessa: Bai. Baina inguruagaz eta daukagunagaz disfrutatzea lortzea da helburua; hori transmititzea, ez etekin ekonomikoa lortzea.

Berba bitan

Kafea ala infusioa?

Vanessa: Infusioa

Lur: Momentuaren arabera

Jose: Infusioa

Liburu bat?

Vanessa: 'La mujer habitada' edo 'Mujeres que corren con lobos'.

Lur: 'Nora ez dakizun hori'.

Jose: Asko daude.. 'El cuento de la criada'

Paisai bat?

Vanessa: Oihana, landareria askogaz, uragaz, harriekin...

Lur: Haran, baso eta zelaiekin.

Jose: Hondartza iluntzean.

Lur: Bisitari horientzat elkartruke-rako gunea izatea gura genuke.

Jose: Inguruaren ezagutza handiago eskaini gura diegu: landareriaren eta beste bizidunei buruzkoa, adibidez. Askotan oharkabea pasatzen zaizkigun gauza horietan ipini gura dugu arreta.

Udako solstizioan zabalduko duzue jatetxea.

Vanessa: Bai. Sorgin gaua izango dugu. Amalurragaz konektatzean, kanpoko erritmo menperatzailea gelditzea lortuko dugu horrela.

Kulturak ere izango du lekua...

Lur: Bai. Formatu txikiko ekin-tzez gainera, era transberts-lean landuko dugu kultura.

Adibidez, gure elikaduran aurkitu ditzakegun bost landareren lamina bana egingo digu lagun batek, eta, laminetan eta kartan, horiei buruzko informazioa emango dugu. Urtarorik urtaro osatzen joango gara.

Jose: Sortzaileek lanak erakutsi eta herritarrekin elkar-reragiteko tokia izango dute.

Lau-hortza

Ainhoa Olaso Sopelana Ikaslea



Zenbait bertso xelebre

Maialenek, 25 urte izanda, ikasten inbertitu du bere denboraren gehiengoa azken urteotan, eta asteburuetan tabernan kontratu gabe egin ditu lanorduak. Klasera joateko autobusa ordaintzeko eta ordenagailu berria erosteko beste irabazi du.

Orain gurasoen etxetik irte-teko kalkuluak egiten ari da Markel. Udako sorosle kontratua amaitzen zaionerako, irailetik aurrera curriculum-a bidaltzeko lantokien zerrenda egin du agendan. Baina ezin ditu egun libreak aurreikusi Albak, bi haur zaintzen ditu as-tean zehar, eta ostiraletan esaten diote bere hurrengo aste-ko ordutegia. Gainera, udan lagunekin oporretan joan gabe ge-ratuko da Itziar, autoeskolako matrikula ordaindu ondoren.

Banatzaila ibili da bizikleta gainean Unai. Mandatu bakoitzeko ordaina jasotzeak, lanor-duak asko luzatzera eramandu. Eta neka-neka eginda iritsi da egunero etxera Leire, arratsalde osoan supermerkatuan kaxak mugitzen ibili ondoren, bizkarreko min handiarekin; prakak ere zulatu zaizkio.

Marinak ezin du 800 euroko errenta ordaindu. Hiyaba buruan jantzita, ezin aurkitu dabil pisukidea. Tabernako jabeek tirantedun kamisetak eta soinekoak erabiltzera animatzen dute Ane. Bi hiletan egon da praktiketako kontratuarekin eta 400 euro kobratu ditu guztira Mikelek, klasekide batek 300, eta besteak ezer ez. Ez da inor beraz fio, 16 urterekin hasi zen apustu makinekin zaletzen Aitor, eta orain Eiderrek, bere arrebak, begia jarri behar izan dio, izeba zaintzeaz gainera.

Prekaritateak baditu milaka aurpegi.



afede_{ko} 150€-ren  bonuen



zozketako irabazleak:

Amaia Huarte eta Matxalen Mancisidor